


# TOLOSAKO PLANGINTZA PARTEKATUA 2017-2027

2. ATALA



tolosatzen

# TOLOSÀ




Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako proiektua, Tokiko Agenda 21 programako ekintza planak garatzeko diru-laguntzen (ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua) eta Herritarren partaidetza sustatzeko lurraldeko udalei zuzendutako diru-laguntzen (Herritarren partaidetzarako Foru Zuzendaritza) esparruan.

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa







tolosätzen

# Aurkibidea

---

<b>2030. URTERA BEGIRAKO TOLOSA</b>	07
-------------------------------------	----

<b>2017-2027 EKINTZA PLANA</b>	21
--------------------------------	----

## 1.go ildo estrategikoa

### **TOLOSA, PERTSONA ARDATZ DUEN HERRIA**

1.1 Tolosako gizarte zerbitzuak guztionak, guztiontzat	26
1.2 Tolosako haur, nerabe eta gazteen sustapena	29
1.3 Tolosan berdintasuna egunero eta edonon	31
1.4 Tolosa, herrikidetasunetik eta erantzukidetasunetik gobernantza eredu berri baterantz	36
1.5 Tolosa, arnas-gunerantz	37
1.6 Tolosa, osasunez bizitzekoa	42

## 2. ildo estrategikoa

### **TOLOSA, HERRI HEZITZAILEA ETA KULTUR ANITZA**

2.1 Tolosa, herri hezitzailea eta jakintsua	48
2.2 Tolosa, kultur anitza	51

## 3. ildo estrategikoa

### **INGURUNEAREN BABESA ETA UDALERRIAREN NORTASUNA MANTENDUKO DUEN HERRI GARAPEN IRAUNKOR EREDUGARRIA**

3.1 Birgaitzea Tolosako garapenaren oinarri	58
3.2 Landa eremu bizia	60
3.3 Oria ibaiari begira dagoen Tolosa	62

3.4 Espazio publiko irekiak eta udal ekipamenduak herritarren harremanetarako gune bilakatzea	64
3.5 Kontsumo arduratsua eta hondakinen kudeaketa eredugarria	66
3.6 Biodibertsitatea bizi-kalitatearen oinarri	68
3.7 Klima aldaketari aurre egin eta egokitzen jakingo duen herria	70
3.8 Mugikortasun jasangarria eta segurua sustatzen duen herria	72
3.9 Ingurumen kalitatea eta giro osasuntsua sustatzea	75

## 4. ildo estrategikoa

### **TOLOSAKO GARAPEN EKONOMIKOA SUSTATU HIRI EKONOMIA, INDUSTRIA ETA LEHEN SEKTOREA OINARRITZAT HARTUZ**

4.1 Tolosako merkataritza sustatu	78
4.2 Turismoak herriaren garapen ekonomikorako eskaintzen dituen aukerak aprobetxatu	79
4.3 Tolosako azpiegitura eta baliabideak	80
4.4 Enpresen lehiakortasuna sustatu	82
4.5 Erlazio era berriak	83
4.6 Tolosa, industriarentzat erakargarri	85
4.7 Enplegua, funtsezko aldagaia Tolosako garapen ekonomikoan	87

<b>ESKERRAK</b>	92
-----------------	----

---

---

Dokumentu honek tolosatzen prozesuaren bigarren atalaren emaitzak jasotzen ditu zeinak Gobernantza eredu berri bat artikulatzea duen helburu.

tolosatzen prozesuak, Tokiko Agenda 21ren lan metodologia Gobernantza eredu berri baterako egokitu du. Eredu berri honek parte hartzea, zeharkakotasuna, plangintza estrategikoa eta gardentasuna uztartzen ditu. Honek udal administrazioaren ohizko jardunean planteamendu berritzaile bat proposatzen du.

---







2030.  
urtera  
begirako  
Tolosa

Dokumentu honek tolosatzen prozesuaren bigarren atalaren emaitzak jasotzen ditu zeinak Gobernantza eredu berri bat artikulatzea duen helburu.

Tolosatzen prozesuak, Tokiko Agenda 21ren lan metodologia Gobernantza eredu berri baterako egokitu du. Eredu berri honek parte hartzea, zeharkakotasuna, plangintza estrategikoa eta gardentasuna uztartzen ditu. Honek udal administrazioaren ohiko jardunean planteamendu berritzaile bat proposatzen du.

Lehenengo fase batean, elkarren arteko lana eta sinergiak batuz, parte hartzerako oinarriak eta prozesuaren diseinua adostu ziren, jarraian, udalerrriaren egungo argazki partekatua osatu zelarik. Argazki honek abiapuntu ezin hobea suposatu du, indar-guneak azaleratu eta hobetu beharreko esparruak agerian utzi baitira.

Oraingo honetan eta aurreko fasean ateratako ondorioak oinarritzat hartuz, jarraian zehazten diren lanak burutu dira:

**1. 2030. urtera begirako Tolosaren irudikapena:** zer nolako Tolosa imajinatzen dugu 2030. urtean? zeintzuk dira udalerrriaren norabidea zehaztuko duten ildo eta helburu nagusiak?

**2. 2017-2027 Ekintza Planaren formulazioa:** helburu eta ekintza zehatzak jasotzen dituen Plana, Tolosako Agenda 21aren ibilbideari jarraipena emango diona, baina Tokiko Agenda 21aren eredu berritzaile bat planteatuz.

**3. Gobernantza eredu berri baten eraikuntza kolektiboa:** plana ezartzen eta irudikatutako Tolosaren norabidean ibiltzen ahalbidetuko duen dinamika proposamena, zeinak herritarren eta udalaren arteko zubiak eraikitzen dituen.

Aurreko fasean bezalaxe, fase honetan ere **jasangarritasuna, genero ikuspegia eta euskara** modu zeharkakoan landu dira. Modu berezian azpimarratzekoa da halako plangintza estrategiko bat, bere fase guztietan, Berdintasun Printzioa aintzat hartuz eta bere barnean txertatuz landu izan dela.

Orain arteko prozesuan zehar 120 herritar banakotik gora eta 50 eragile desberdinetako kideek parte hartu dute. Herritar horietatik % 55 inguru emakumeak izan dira. Eta bereziki azpimarratzekoak izan ziren 2016ko azaroaren 8an eta 15ean Kultur Etxeko Areto Nagusian herritar, herri eragileek eta udal teknikariek elkarlanean burututako saioak.



# SORKUNTZA PARTEKATUA

Aurreko fasean abian jarritako parte-hartze dinamikari jarraipena eman zaio, elementu estrategikoen eta Planaren definizioaren sorkuntza partekatua bilatu duen prozesua abian jarri.

Hasieran adostu zen bezala, **Talde Sustatzaileak** (heritarren ordezkariak osatutako taldea), **Lankidetzak Mahaiak** (udal teknikariak osatutako lantaldea) eta **Jarraipen Batzordeak** (lantalde politikoa) elementu estrategikoen lanketan protagonismo berezia izan dute, hau da, 2030. Urterako ikuspegia eta erronken definizioan.

Bereziki garrantzitsua izan da udal teknikariak osatutako Lankidetzak Mahaiak izan duen zentralitatea prozesu guztian zehar. Lankidetzak Mahaiak udal teknikarien arteko koordinazioa eta komunikazioa hobetzeaz gain, alor desberdinetarako aurreikusitako ekintza estrategikoak zeharkakotasunez lantzea ahalbidetzen du. Zalantzarik gabe, Gobernantza eredu berria eraikitzeko eta sistematizatzekeo prozesuan ezinbesteko koordinazio eta lanerako espazioa.

Herritarren parte hartzearen oinarri izan diren **Mahai sektorialekin** Planaren formulazioan aktiboki parte hartu dute, ekintza konkrituak proposatuz, eztabaidatuz eta adostuz. Lehenetsunak ere finkatu dira eta 2017. urtean bertan abian jar daitezkeen jarduerak konkrituak aukeratu dira, zeintzuek udal aurrekontuetan txertatuak izan diren.

Hau da, hain zuzen, datozen urteetara begira landu nahi den dinamika, **Planaren eta urteko udal aurrekontuen arteko lotura** bilatuz eta herritarrak lanketa honen eragile aktiboak bihurtuz.

Alderdi politikoei dagokionez, Jarraipen Batzordean, nahiz Batzorde Informatibo desberdinetan ordezkari politikoei egindako ekarpen guztiak jaso eta plangintzan barneratu dira.

Dokumentuaren azkeneko atalean hau guztia zehaztasunez azaltzen da.



Herritarren parte hartzearen oinarri izan diren Mahai sektorialekin Planaren formulazioan aktiboki parte hartu dute

# TOLOSA 2030. URTERA BEGIRA

2030. urtera begirako Tolosa irudikatzeko bi elementu estrategiko nagusi definitu dira:

## IKUSPEGIA

Zer nolako Tolosa imajinatzen dugu 2030. urtean?

## HELBURU ESTRATEGIKOAK EDO ERRONKAK

2030. urtera begira udalerrriak jarraitu beharko lukeen norabidea zehaztuko duten ildoak.

Hauek biak modu partekatuan osatu eta adostu dira, **Tolosaren Argazki Partekatuan** oinarrituz, bertan egindako azterketaren ondorio nagusietan, hain zuzen.



ARGAZKIA: PATXI JAUREGI

ARGAZKIA: PATXI JAUREGI

Tolosa  
aniztasunean  
eraikitako herri  
bizia, jakintsua  
eta ekintzailea da

## IKUSPEGIA:

### Zer nolako Tolosa imajinatzen dugu 2030. urtean?

Ikuspegiaren lanketa prozesua diseinu fasean hasi zen, Talde Sustatzailearen laguntzarekin. Lau ataletan egituratutako aurre-ikuspegi bat osatu zen, garai horretan ere adostutako mahai sektorialen egiturarekin bat. Argazki partekatua landu ondoren, formulazio estrategikoaren lanketa-fasean ikuspegia mahai gainean jarri da berriro, berau doitzeko helburuarekin. Berriz irakurrita, ez da beharrezkotzat jo inongo aldaketarik egitea, beraz, bere horretan gelditu da:

**Tolosar** guztion, ongizatea eta osasuna bermatzen duen herria da, arlo guztietan kohesionatua dagoena eta bizimodu osasungarria eta bizi-kalitatea bultzatzen dituen, baita bizimodu aktiboa eta parte-hartzailea ere, balore guzti hauek balioan jartzen dituena.

**Tolosa** aniztasunean eraikitako herri bizia, jakintsua eta ekintzailea da. Ingurua eta bere burua ongi eza gutzen duen kultur anitzeko herria, euskara ardatz izanik guztiok gustura eta eroso sentitzea ahalbidetzen duena.

**Tolosa** herri iraunkor eredu-garria da, hiri eredu alternatibo baterako transizioan, eta orekatua lurralde antolaketaren ikuspegitik, non espazio publikoa elkargune eta bizileku den, kultura, aisia nahiz kirol egitasmoen plaza.

**Tolosak** saretutako ekonomia aktiboa du, berezkoak dituen baliabideak indartuz eta errespetatuz, egitasmo berriei bultzada ematen diena; sektore desberdinen arteko elkarlanaren bitartez, garapen ekonomiko iraunkorra bermatu eta eskualdeko mugetarik haratago zabalduaz.

## ERRONKAK:

### 2030. urtera begira udalerriak jarraitu beharko lukeen norabidea zehazten duten ildoak

Tolosako erronkak ondorengo hiru elementuak batuz osatu dira:



Guztion ekarpenak txertatuz, ondorengo **ERRONKAK** zehaztu dira:

1. BALOREETAN OINARRITUTAKO GIZARTE KONPROMETITUA ETA INKLUSIBOA SUSTATZEA.
2. HERRI HEZITZAILE ETA IREKIA EGITEA, EUSKARA MAILAN ARNASGUNEA, KALEA HERRITARREN TOPAGUNEA BIHURTUZ.
3. GARAPEN IRAUNKORREAN HERRI AINTZINDARIA IZATEA, KLIMA ALDAKETAREN AURREAN KONPROMISO SENDOA HARTUKO DUENA.
4. GARAPEN EKONOMIKO EREDU OREKATUA ETA DUINA BULTZATZEA, PERTSONA ERDIGUNEAN JARRIZ.

Ikuspegia eta erronken arteko lotura zuzena lortu da, 2030ko Tolosa irudikatzen duen elementu bakoitzeko erronka edo helburu estrategiko bat definitu delarik.

**Tolosa** guztion, ongizatea eta osasuna bermatzen duen herria da, arlo guztietan kohesionatua dagoena eta bizimodu osasungarria eta bizi-kalitatea bultzatzen dituena, baita bizimodu aktiboa eta parte-hartzailea ere, balore guzti hauek balioan jartzen dituena.

#### 1. BALOREETAN OINARRITUTAKO GIZARTE KONPROMETITUA ETA INKLUSIBOA SUSTATZEA.

**Tolosa** aniztasunean eraikitako herri bizia, jakintsua eta ekintzailea da. Ingurua eta bere burua ongi ezagutzen duen kultur anitzeko herria, euskara ardatz izanik guztiok gustura eta eroso sentitzea ahalbidetzen duena.

#### 2. HERRI HEZITZAILE ETA IREKIA EGITEA, EUSKARA MAILAN ARNASGUNEA, KALEA HERRITARREN TOPAGUNEA BIHURTUZ.

**Tolosa** herri iraunkor eredu-garria da, hiri eredu alternatibo baterako transizioan, eta orekatua lurralde antolaketaren ikuspegitik, non espazio publikoa elkargune eta bizileku den, kultura, aisia nahiz kirol egitasmoen plaza.

#### 3. GARAPEN IRAUNKORREAN HERRI AITZINDARIA IZATEA, KLIMA ALDAKETAREN AURREAN KONPROMISO SENDOA HARTUKO DUENA.

**Tolosak** saretutako ekonomia aktiboa du, berezkoak dituen baliabideak indartuz eta errespetatuz, egitasmo berriei bultzada ematen diena; sektore desberdinen arteko elkarlanaren bitartez, garapen ekonomiko iraunkorra bermatu eta eskualdeko mugetarik haratago zabalduaz.

#### 4. GARAPEN EKONOMIKO EREDU OREKATUA ETA DUINA BULTZATZEA, PERTSONA ERDIGUNEAN JARRIZ.

# GOBERNANTZA EREDU BERRI BATEN ERAIKUNTZA KOLEKTIBOA

**tolosatzen** prozesuak Gobernantza eredu berri baten eraikuntza ahalbidetu du, Udala eta herritarren arteko zubiak eraikitzen lagunduz eta udal politiken kudeaketa parte-hartzaileetarako bidea erraztuz. Funtzionatzeko era berri bat da, plan eta politika publikoen kudeaketa eraginkorren fokua jartzen duena, administrazioaren kontu ematera eta gardentasunera bideratuta dagoena.

Gobernantza eredu berri hau, **tolosatzen** prozesuaren hasieran sortutako parte-hartze egituretan oinarritzen da: **Lankidetzeta Mahaia, Jarraipen Batzordea, Talde Sustatzailea** eta lau **mahai sektorialak**. Egitura hauek prozesu osoan zehar martxan egon dira eta bai argazki partekatuan baita ekintza planaren diseinu fasean ere parte hartu dute.

Gobernantzarako egitura hau sendotzeko asmoarekin, Planaren ezarpenean eta urteko segimenduan euren parte-hartzerako planteamendu orokorra landu da. Planteamendu hau abiapuntutzat hartuz, behar zehatzen arabera edo eragileek adostutako proposamen ezberdinen arabera, berau egokituko litzateke.





### Talde Sustatzailea

**Talde Sustatzailea** udalerraren aniztasuna ordezkatzen duten eragileek osatutako taldea da, non sektore desberdinetako ordezkariek parte hartzen dute.

### Mahai Sektorialak

**Herritarrek eta Udal teknikariak** osatutako mahaiak. Urtez urte, sektorialki, jarraipena eta jarduera berriak proposatzeko helburuarekin elkartuko dira.

### Lankidetzza Mahaia

Lankidetzza Mahaia **udal teknikariek** osatutako parte-hartze organoa da.

### Jarraipen Batzordea

Jarraipen Batzordea **Jarraipen Batzordea gobernu taldeak zein oposizioan dauden talde politikoek** osatzen dute.



Prozesuan euren parte-hartzerako planteamendu orokorra landu da

Planteamendu honek **Planaren urteko kudeaketa-zikloa** eta Udalsarea 21aren eremuan (Euskadiko Iraunkortasunerako udalerrien Sarea) Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planen segimendurako adostutako metodologia kontutan hartzen du:

1. Urtearen lehenengo hiruhilekoan Planaren **EBALUAZIOA** egingo da, bere ezarpen-maila neurtzeko eta, beharrezkotzat jotzen bada, Planaren eguneraketa egiteko (ekintzak birformulatu edo ekintza berriak sartu).
2. Aldi berean, **IRAUNKORTASUN ADIERAZLEEN KALKULUA** egingo da, aurrera eramaten ari diren jarduerekin lortzen ari diren emaitzak neurtzeko.
3. Urtearen azken hiruhilekoan, hurrengo urtean martxan jar daitezkeen jarduerak **PROGRAMATU**ko dira, lan hau udal aurrekontuen lanketarekin lotuta egongo delarik.

Planaren kudeaketarekin batera, **aurrekontuetan onartutako ekintzak urte osoan zehar gauzatzen joango dira**, horretarako mahai sektorialak oinarrizko egiturak eta erreferentziazko lan taldeak izango direlarik.



Planaren kudeaketarako parte hartze eremu bakoitzeko urtean bilera desberdinak egingo dira jarraian zehazten diren helburuekin:

## BILERA

### Herritarrekin

## HELBURUAK

1. Planaren ebaluazioaren eta adierazleen emaitzak ezagutzea.
2. Emaitzak baloratzea eta interpretatzea.
3. Mahai sektorialen bitartez abian jartzen ari diren ekintzen berri izatea.

### Teknikariekin

4. Planaren ebaluazioaren eta adierazleen emaitzak ezagutzea.
5. Emaitzak baloratzea eta interpretatzea.
6. Mahai sektorialen bitartez abian jartzen ari diren ekintzak mahai gainean jartzea eta beste teknikariekin partekatzea.

### Ordezari politikoekin

7. Planaren ebaluazioaren eta adierazleen emaitzak ezagutzea.
8. Emaitzak baloratzea eta interpretatzea.
9. Mahai sektorialen prozesuak ezagutzea eta euren bitartez abian jartzen ari diren ekintzen berri izatea.

### Herritarrekin

10. Hurrengo urtera begira lehentasunezko ekintzak identifikatzea eta aurrekontuetan txertatzeko proposamenak egitea.

### Teknikariekin

11. Hurrengo urtera begira mahai sektorialak egindako ekintzen proposamena baloratzea eta aurrekontuen lanketa teknikoa aurkeztea.

### Ordezari politikoekin

12. Mahai sektorialan eta Lankidetzeta Mahaian eztabaidatutako hurrengo urteko aurrekontuetarako ekintzen proposamena baloratzea eta onartzea.

Bestalde, Tolosako Web orrian, sail bakoitzari dagokion atalean, sailen ardurapekoak diren plangintza partekatuko ekintzak argitaratuko dira. Eta era berean, atal honetan ekintza bakoitzaren gauzatze maila adieraziko da. Honek plangintzaren jarraipena egitea erraztuko du eta, berrikuntza bezala, udal administrazioak aurrera eramaten dituen politiken buruzko kontu emate zuzeneko ahalbidetuko du.



# ETORKIZUNA EGUNEZ EGUN ERAIKITZEN DELAKO, ZURE PARTE HARTZEA BEHARREZKOA DA.

Tolosaren etorkizuna egunez egun eraikitzen da. Alorrez alor parte hartzen duten herritar eta eragileen ekarpenekin. tolosatzen prozesua ez da dokumentu baten publikazioarekin amaitzen. Ez da hori helburua. tolosatzen lan egiteko modu bat da. Tresna bat. Parte hartzearen bide-tik, egunez egun, Tolosako etorkizuna herritarrekin batera eraikitzea ahalbidetuko duen tresna. Horregatik da garrantzitsua herritarrek, bakoitzak ahal duen mailan eta ahal duen moduan, etorkizuneko Tolosaren etengabeko eraikuntzan parte hartzea.

Gaurdaino ehundik gora herritar eta eragileek egin bezala, zuk ere parte hartu nahi al duzu datorren hamarkadako udal politika estrategikoaren definizioan eta lanketan?

Ez zalantzarik izan eta animatu!

Tolosako etorkizunaren parte izango zara. Parte hartu nahi al duzu bere diseinuan?

**tolosatzen prozesuari buruzko informazio gehiago jasotzeko edota harremanetan jartzeko eta ekarpenak egiteko hainbat bide dituzu eskura. Aukeratu zurea:**



AURREZ AURREKOA

Udaleko deialdien bitartez



E-MAIL

[partaidetza@tolosa.eus](mailto:partaidetza@tolosa.eus)



WEB

[www.tolosa.eus/eu/tolosatzen](http://www.tolosa.eus/eu/tolosatzen)



TELEFONOZ

943 69 74 51

Garikoitz Lekuona Izeta  
Iñigo Muñoz Lopez  
tolosatzen-eko arduradunak






2017  
2027  
Ekintza  
Plana





Ekintza Planak 3 elementu nagusi ditu eta jarraian azaltzen den bezala egituratzen da:



Tolosako 2017-2027 Ekintza Plana 4 ildo estrategiko, 24 programa eta 73 ekintzek osatzen dute. Planean dagoen urtetan iraunkortasun arloan Tolosak izango dituen helburu nagusiak zehazten dira eta hauek lortzeko garatuko diren ekintzen zerrenda.

Ondorengo orrietan Planean jaso diren ekintza bakoitzaren fitxa azaltzen da, bakoitzean ondorengo informazio jasotzen delarik:

**Ekintzaren titulua:** ekintzaren izenburu zehatza eta laburra.

**Ekintzaren deskribapena:** Ekintzarekin zer lortu nahi den azaltzen da eta berau lortzeko burutuko diren jarduerak nagusiak jasotzen dira.

**Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduerak:** urteroko ebaluazioa egiteko orduan ekintzaren gauzatze-maila neurtzeko aztertuko diren jarduerak zehatzak.

**Epea:** Ekintza zein epetan burutzea aurreikusten den:

- Laburra (2017-2019)
- Ertaina (2019-2022)
- Luzea (>2023)

**Arduradun nagusia:** Ekintza burutzeko ardura izango duen Udaleko saila.



1.GO ILDO  
ESTRATEGIKOA

---

# Tolosa, pertsona ardatz duen herria

---

# 1.1 Tolosako gizarte zerbitzuak guztionak, guztiontzat

## 1.1.1

### GIZARTE ZERBITZUAK EZAGUTARAZI

#### Deskribapena:

Gizarte Zerbitzuen inguruan ezjakintasun maila handia dago, eta horrek, askotan, zerbitzu horren estigmatizazioa eraman du (diru-emaile hutsa dela, hartzaileren profil estereotipatua,...). Hori dela eta, lehen pausu gisa, Gizarte zerbitzuek eskaintzen dituzten zerbitzuak jasotzen dituen gida bat egitea izango da.

#### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziako jarduera:

Gizarte zerbitzuei buruzko gida bat egin eta dibulgazio kanpaina burutu. Gida honek hizkuntza ez-sexista erabiliko du eta saihestuko ditu emakumeen irudi estereotipatuak.

Epea: Laburra

Arduradun nagusia: Gizarte zerbitzuak

## 1.1.2

### GIZARTE ZERBITZUKO ARRETA-ZERBITZUA HOBETU

#### Deskribapena:

Herritarrekiko gertutasuna erakutsiko badu harrera zerbitzuak, besteak beste, zerbitzua bera eskaintzeko moduagatik, zerbitzua eskaintzen den espazioaren baldintza fisiko/espazialengatik eta abar izango da.

Guzti horregatik, ekintza honen bitartez abian jarri asmo dira zerbitzuaren eskaintza gertukoa, irisgarria eta kalitatezkoa egingo dutren ekintza edo proposamen desberdinak.

#### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziako jarduera:

Irisgarritasuna bermatu eta arreta protokolo berri.

Epea: Laburra

Arduradun nagusia: Gizarte zerbitzuak



### 1.1.3

## GIZARTE ZERBITZUAK LANDA-AUZOETARA GERTURATU

### Deskribapena:

Gizarte Zerbitzuen ezjakintasun maila handia bada ere, are gehiago erdigunetik (eta zerbitzuetatik) gertu ez dauden herritar haientzako. Horregatik, aproposa litzateke zerbitzuaren deszentralizazioa, auzoetara eta landa eremuetara bisitak areagotzea.

### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziako jarduera:

Gutxienez 2 landa-auzotara bisitak egitea urtero.

**Epea:** Ertaina

**Arduradun nagusia:** Gizarte zerbitzuak

### 1.1.4

## GIZARTE OSASUNTSUAGO ETA INKLUSIBOAGO BAT HELBURU, PREMIAZKO ALORRETAN ERAKUNDEEN ETA ERAGILEEKIN ELKARLANA SUSTATZEKO LAN MAHAI PERMANENTEAK ERATU

### Deskribapena:

Gizarte-zerbitzu, osasun zerbitzu eta eskolen arteko koordinazioa mahaia, egun ematen bada ere (elikadura osasuntsuaren proiektua, adibidez), harreman horiek areagotu eta sendotu behar dira, bilera agenda bat antolatuz, prebentzio-EKINTZAK landuz,...; horrek balio izango du kasu larriak modu goiztiarrean hautemateko.

Tolosak inmigrazioarekin lotutako hainbat jarduera egiten urteak badarama ere, ildo horretatik jarraitu behar da, jatorri desberdina duten pertsonen gizarteratze prozesua laguntzeko, beste bizilagunekin elkarlanean aritu ahal diren guneak sortuz, euskal kulturaren partaide bihurtuz eta beraien esperientziaz tokiko kultura aberastuz.

Pobrezia-kasu larriak detektatzen direnean, gizarte-langileak baliabide nahikoak izan behar ditu egoera horri erantzun azkarra emateko, batez ere, familia monomarentalen kasuetan, horiena baita pobrezia-egoera larria jasotzen duen kolektibo ahulena.

### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziako jarduera:

Elkarlan-hitzarmenak alorrez alor sinatu edota lan-mahaiak martxan jarri aipatu alorretan. Lan-mahai horiek osatzeko, kontuan izango da emakume eta gizonen kopurua orekatua izatea edota berdintasunean formazioa jaso duen pertsona batek parte hartzea.

**Epea:** Laburra

**Arduradun nagusia:** Gizarte zerbitzuak



### 1.1.5

## GIZARTE ZERBITZUEN ALORREAN JARDUTEN DUTEN ELKARTEEN ELKARLANA SUSTATU

### Deskribapena:

Gizarte Zerbitzuen alorrean jarduten duten elkarte kopurua handia bada ere, elkar ezagutza eta elkar ekintza falta nabaria da eragileen iritziz eta egoera hau irauli asmoz eta elkarte osagarritasuna lantze aldera, komenigarri ikusten da elkarte desberdinek elkarren berri izateko eta lankidetzatza proiektu berriak abian jartzeko ekimenak bultzatzea.

### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduera:

- Elkarte arteko topaketa antolatu.

Epea: Laburra

Arduradun nagusia: Gizarte zerbitzuak

Komenigarri ikusten da elkarte desberdinenek elkarren berri izateko eta lankidetzatza proiektu berriak abian jartzeko ekimenak bultzatzea



# 1.2 Tolosako haur, nerabe eta gazteen sustapena

## 1.2.1

### HAUR, NERABE ETA GAZTEEN IKUSGARRITASUNA, PARTE HARTZEA ETA INPLIKAZIOA SUSTATU TOLOSAKO GIZARTE BIZITZAN

#### Deskribapena:

Honen helburua beraien nahiak ezagutzea, neska eta mutilen arteko berdintasuna sustatzea eta beraien arteko elkar-ezagutza handitzea litzateke eta bestalde, herriak ere beraien ezagutza izatea.

#### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduera:

- Gazteen eta gazte-elkarteen arteko jardunaldi edota topaketak burutu bi urtean behin.
- Haur, nerabe eta gazteen nahiak eta kezak ezagutzeko diagnostiko partekatua egin.
- Boluntariotzaren nazioarteko eguna bisualizatu herrian ekintza konkretuekin.

Epea: Laburra

Arduradun nagusia: Gazteria

## 1.2.2

### HAUR, NERABE ETA GAZTEEN ZERBITZUAK EZAGUTARAZI, INDARTU ETA ERAGILE ETA ERAKUNDEEKIN ELKARLANEAN JARDUN

#### Deskribapena:

Haur, nerabe eta gazteen inplikazioa lortzeko bideetako bat udalerriko erabaki-guneetan ahotsa ematea, protagonismoa ematea izan daiteke. Gisa honetara aukera izango lukete Tolosan haien bizitza nola hobe daitekeen adierazteko, eta gazteen ahalduntzea ere landuko litzateke, haiei konfiantza eta ardura emanez eta, era berean, neska eta mutilen arteko berdintasuna bermatuz.

#### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduera:

- Hezkuntza, prebentzio eta aisia alorretako elkarlan hitzarmenen sistematizazioa.
- Haur, Nerabe eta Gazteen Zerbitzuen ber-definizioa modu parte-hartzailean burutu eta bisualizatu.

Epea: Laburra

Arduradun nagusia: Gazteria

### 1.2.3

## HAUR, NERABE ETA GAZTEEN ARTEKO ELKARLANERAKO, SORMEN EKINTZETARAKO ETA BELAUNALDI ARTEKO EKINTZAILETZARAKO GUNEAH AHALBIDETU

### Deskribapena:

Izaera parte-hartzailea duten espazio komunak sortu behar dira, non gazteen arteko eta belaunaldien arteko elkar hartu-emanak bideratu ahalko diren. Nerabe eta gazteentzako aukera berriak lehentasunez sustatuz.

### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduera:

- Haurren hiria egitasmoaren barruan belaunaldien arteko informazioaren transmisioa landu.
- Hirigintza alorrak egin beharreko udal ekipamenduen azterketa integrala burutu ondoren, espazio egokia hautatu eta modu partekatuen espazioa eta erabilera desberdinak definitzea, berdintasun irizpideak kontuan hartuz.

Epea: Laburra

Arduradun nagusia: Gazteria

### 1.2.4

## GAZTEEN EMANTZIPAZIOA SUSTATZEKO POLITIKAK DISEINATU ETA GAUZATU

### Deskribapena:

Gaitasun pertsonalak eta gizarte-loturak landuz, ikasiz eta indartuz, pixkanakako emantzipazio-prozesu bat burutzeko eta heldutasunera arrakastaz eta asetasunez igarotzeko aukera ematen duen etapa gisa hartzen dugu gaztaroa. Horrexegatik, oso garrantzitsua da gaztaroko azken etapari begira bereziki, gazteen emantzipazioa errazteko eta bideratzeko bitarteko eta baliabide desberdinak eskura jartzea.

### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduera:

- Gazteen emantzipaziorako oztopo eta beharren inguruko azterketa-diagnostikoa egitea.
- Gazteen emantzipaziorako norantzan bidelagun izan. Arlo profesionalarekin loturiko ekintza ezberdinak burutuz-idea lehiaketa- berdintasun irizpideak txertatuz.

Epea: Laburra

Arduradun nagusia: Gazteria



# 1.3 Tolosan berdintasuna egunero eta edonon



## 1.3.1

### UDALAREN POLITIKETAN, JARDUERETAN, ANTOLAKETAN ETA ERABAKIETAN GENERO-ZEHARKAKOTASUNA TXERTATU

#### Deskribapena:

Politika publikoak diseinatzean eta garatzean genero ikuspegia erantsi ahal izateko behar diren egiturazko, administrazioko eta kudeaketako baldintzak sortzea, azken helburu gisa emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreala lortzeko.

Epe labur, ertain eta luzeko proiektzioa duen proiektu estrategikoa da, eta lan-sistematikak aldatu eta sortu nahi dira, udal jarduketa guztietan genero-ikuspegia modu automatikoan sartzeko aukera emango duena.

#### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduera:

- Genero-ikuspegia txertatzeko, udal departamentuak koordinatzeko, planifikatzeko eta parte hartzeko mekanismoak egokitzea.
- Tekniko eta politikoentzako prestakuntza-plan bat diseinatu, garatu eta ebaluatu.
- Udaleko departamentu bakoitzaren abiapuntuko egoerara egokitutako helburuak eta jardun planak finkatzea.
- Administrazio prozeduretan (kontratazioetan, diru-laguntzetan, hitzarmenetan eta abar) genero-zeharkakotasuna txertatzea eta hizkuntza ez sexistaren erabilera sustatzea.
- Udal araudietan genero-zeharkakotasuna txertatzea.

**Epea:** Laburra

**Arduradun nagusia:** Berdintasuna

### 1.3.2

## JATORRI EZBERDINETAKO HERRIKO EMAKUMEEN JABETZA, AUTONOMIA ETA PARTE-HARTZEA SUSTATUKO DITUEN JARDUERAK MARTXAN JARTZEA. BAITA MASKULINITATE ROL ETA ESTEREOTIPOAK BERRIKUSTEA ERE

### Deskribapena:

2009. urtean Jabetza Eskolaren proiektua jarri zen martxan. Espazio hau emakumeen jabetza eta parte-hartze soziopolitikoak sendotzeko dago pentsatuta. Proiektu honen helburuak, besteak beste, emakumeek eta sexu-joera edo sexu-genero identitate askotariko kolektiboek bizi duten menpekotasun errealtateari izena jartzea, errealtate hori auzitan jartzea, eta irtenbideak proposatzea dira.

Gaur egun, helburua da Jabetze Eskola sendotzea, eta desberdintasunen eta desabantailen sorkuntzaren gaineko ikuspegia zabaltzea eta konplexuago bihurtzea genero-kategoria beste kategoria batzuekin uztartuz: arraza, adina, nazionalitatea, sexu-lehentasuna eta erlijio-praktika.

Ekintzen, programen eta sentsibilizazio kanpainen helburuak izan daitezke:

- Tolosako gizarteak berdintasun irizpideak barneratu dezan.
- Herritarrei emakume eta gizonen arteko desberdintasunak ikustarazteko.
- Emakume gazteen jabetza sustatzea eta Tolosako espazio publikoa bere egitea, protagonismoa eta ikusgarritasuna eskuratzeko.
- Aurrera egitea hezkidetza-eskola baterantz, desberdintasunak eta mekanismo diskriminatzaileak zuzendu eta ezabatzeko, eta ikasleek beren nortasuna libreki garatu ahal izan dezaten, berdintasun-giro egiazko batean eta sexuaren araberrako mugarik edo baldintzatzailearik batere gabe.
- Udalak buletin bat atera dezake esparru horretan egin den lana ikustarazteko (datuak, portaerak, salaketak, eskuragarri dauden zerbitzua, ikastaroak, eta abar).

---

### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziako jarduera:

- Udalerriko esparru ezberdinetan (kulturan, kirolean, musikan, aisian, gazte lokaletan, zaintza-lan ordainduan, eta abar) dauden neska gazteekin gogoeta kolektibo bat egitea, beraien egoerak hobetzeko eta eraldatzeko estrategiak eta esku hartzeko proposamenak lantzeko.
- Tolosako ikastetxe guztietan zuzendutako Hezkidetza egitasmoaren sistematizazioa eta ebaluazioa egin eta etorkizunerako aurreikusten diren erronkak eta ildo estrategikoekin beste proiektu bat martxan jarri.
- Maskulinitate eredu berria sustatzeko sentsibilizazio kanpainak eta ikastaroak antolatu.
- Jaien behatokiaren diseinua eta garapena.
- Jaietan eta elkarte gastronomikoetan berdintasuna sustatzeko kanpaina abian jarri eragileen inplikazioarekin.

---

**Epea:** Laburra

**Arduradun nagusia:** Berdintasuna

---

### 1.3.3

## **PARTAIDEZTA-PROZESUAK ERRAZTEA ETA ESTRUKTURAK ETA MEKANISMOAK SORTZEA, TOLOSAN EMAKUMEENTZAKO ETXE/GUNE BAT ANTOLATZEAREN EGOKITASUNA EZTABAIDATZEKO ETA GOGOETA EGITEKO**

### **Deskribapena:**

Tolosako eta Tolosaldeko emakumeentzako konfiantzazko eremu bat, alegia, berdintasun inguruko kezkek inongo aurreiritzirik gabe adierazi ahal izateko, haien premiei erantzuten dizkien ekintzak antolatzeko gune bat izatearen egokitasuna eztabaidatzeko eta gogoeta egiteko prozesua martxan jarriko da; izan ere, gune fisiko komuna izateak erraztu egiten ditu pertsonen arteko harremanak, aliantzak, koordinazioak eta proiektuen sorrerak eta garapenak.

### **Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduera:**

- Beste toki batzuetan emandako esperientziak aztertu daitezke, abiapuntu gisa.
- Lan-mahai tekniko-politikoak eratzea.
- Gunearen/Espazioaren filosofia, helburu, lan-ildo, funtzionamendu, kudeaketa, finantziario eta abarri buruzko hausnarketa parte-hartzailea egitea.
- Tolosako eta Tolosaldeko emakumeen talde eta eragile ezberdinekin kontrastatze-prozesu bat zabaltzea eta inplikazio-maila ahalik eta handiena lortzea.
- Partaidetza-prozesu baten bidez herritar guztiei proiektua aurkeztea.
- Gune/Espazioaren kokalekuaren eta eraikinaren azterketa egitea.

**Epea:** Laburra

**Arduradun nagusia:** Berdintasuna



### 1.3.4

## SENTSIBILIZAZIO, DETEKZIO, PREBENTZIO, INTERBENTZIO ETA ARRETA POLITIKAK SUSTATU, INDARKERIA ETA ERASO SEXISTARI, HOMOFOBIARI, LESBOFOBIARI ETA TRANSFOBIARI AURRE EGITEKO

### Deskribapena:

Emakumeen aurkako indarkeriaren oinarria emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna da eta desberdintasunari era integralean egin behar zaio aurre. Irizpide honekin, 2014an, bi urteko prozesua izan ondoren, genero indarkeria eta sexu erasoak bizi dituzten emakumeei arreta hobea emateko erakundeen arteko jarduerarako eta koordinaziorako I. Udal Protokoloa sinatu zen.

Protokoloak etengabe hobetzeko helburua du, ez da dokumentu itxia, aldatzen joango da protokoloari jarraipena egiteko tokietan sumatutako beharrei egokitzeko.

Hori dela eta, gaur egun, indarkeria izendatzeaz gain, beharrezkoa ikusten da indarkeriaren terminologia berria protokoloan txertatzea, definizioan bertan horren kausak azaltzeko, egiturazko desberdintasunean oinarrituta dauden emakumeen eta gizonen arteko botere-harremanak kontuan izateko eta indarkeria pairatzen duten beste subjektu guztien gaineko begirada zabalitzen laguntzeko.

Bestalde, ezinbestekotzat jotzen da mekanismoak martxan jartzea neska eta mutil gazteekin indarkeria eta eraso sexistak detektatzeko eta prebenitzeko.

---

### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziako jarduera:

- Indarkeriaren terminologia berriak udal protokoloan txertatu.
- Indarkeriaren aurrean begirada eta ezagupena zabaltu, sentsibilizazio kanpainaren bidez.
- Indarkeria matxistaren erroak ikustarazteko sentsibilizazio kanpaina martxan jarri.
- Programa garatu, indarkeria sexistaren adierazpide desberdinak aurrez detektatzeko eta honen aurrean erantzun egokiak emateko.
- Erakundeen arteko egungo koordinazio-mekanismoak sendotu, indarkeria sexista eta sexu-erasoak jasaten dituztenei arreta hobea emateko.
- Tolosako ikastetxetan indarkeria eta eraso sexistak, homofobia, lesbofobia eta transfobia, detektatzeko eta prebenitzeko gazteei zuzendutako Beldur Barik programarekin jarraitu.

---

**Epea:** Laburra

**Arduradun nagusia:** Berdintasuna

---

**1.3.5****BERDINTASUNA DEMOKRAZIAREN BALIO GISA AZPIMARRATU ETA EMAKUMEEN LANAREN GARRANTZI EKONOMIKOA ETA SOZIALA BALIOAN JARRI****Deskribapena:**

Berdintasuna balioan jartzearen helburua da gaur egungo gizarteak dituen gabezia eta berdintasunaren kontrako jokaeren aurrean balio-aldaketa berdinak sustatzea. Helburua da norberaren eta taldearen buruan sakon errotuta dauden balio, sinesmen, mito, estereotipo eta rol matxistak desmuntatu, deseraiki eta ezabatzea. Horretarako, berdintasun baloreak subjektibotasunean kokatzea eta emakumeen bazterkeriaz eta desberdintasun egoeraz kontzientziatzea sustatzen duen balio aldaketa egin behar da.

Modu berean, emakumeek lan-merkatuan parte-hartzetik eta etxeko lan zein zainketa-lanetan duten inplikaziotik datozen diskriminazioak zuzentzen lagunduko du, gizon eta emakumeen ardurak birplanteatuz eta eredu berriak sustatuz.

**Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduera:**

- Emakume eta gizonen arteko berdintasuna balio gisa azpimarratuko duen sentsibilizazio kanpaina martxan jarri.
- Emakumeen lanaren garrantzi ekonomikoa eta soziala balioan jartzeko kanpaina martxan jarri.

**Epea:** Ertaina

**Arduradun nagusia:** Berdintasuna



# 1.4 Tolosa, herrikidetasunetik eta erantzunkidetasunetik gobernantza eredu berri baterantz

## 1.4.1

### TOLOSAN KULTURA PARTE HARTZAILEA ZABALDU, ETA UDAL FUNTZIONAMENDUAN TXERTATU

#### Deskribapena:

Tolosatzen prozesutik eratorritako "Tolosako Plangintza Partekatua" 2017-2027 plangintza estrategikoko dokumentua funtsezko lan tresna da Udala eta herritarren arteko zubiak eraikitzeko eta udal politiken kudeaketa parte-hartzaileagorako bidea errazteko.

#### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziatzko jarduera:

- Gobernantza eredu berria txertatzen jarraitu Tolosatzen prozesua ardatz hartuta.

Epea: Laburra

Arduradun nagusia: Parte Hartzea

## 1.4.2

### INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIAK INDARTUZ GARDENTASUN POLITIKAK SENDOTU

#### Deskribapena:

Teknologia berriek eskaintzen duten aukerak aprobeztatuz, administrazioarekiko harreman zuzenagoa izatea eta administrazioak aurrera eramaten dituen politiken buruzko kontu ematea zuzenekoa izatea ahalbidetuko du.

#### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziatzko jarduera:

- E-administrazioa martxan jarri.

Epea: Laburra

Arduradun nagusia: Parte Hartzea

# 1.5 Tolosa, arnas-gunerantz



## 1.5.1

### EUSKARARI BURUZKO SENTSIBILIZAZIO EKIMENAK BURUTU

#### Deskribapena:

Euskararen historiari buruzko hitzaldiak, erakusketak,.. antolatzea; euskara munduko erreferenteak ekarri,...

#### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziako jarduera:

- Euskararen historiaren inguruko sentsibilizazio kanpaina egin, arlo honetan emakumeak egindako ekarpenak ikustaraziz eta Tolosako historiari aipamen berezia eginez.

Epea: Ertaina

Arduradun nagusia: Euskara

## 1.5.2

### ESPAZIO PUBLIKOAN EUSKARAREN ERABILERA INDARTU

#### Deskribapena:

Udalerrian informazioa gune eta kanal desberdinen bidez zabaltzen da eta iristen da herritarrengana: sare sozialak, komunikabideak. Hori dela eta, bide horietan euskararen erabilera indartu behar da, honetarako ekimen desberdinak aurreikusiz eta hizkera eta irudi sexistarik erabili gabe.

#### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziako jarduera:

- Informazio guneetan erabilera/presentzia indartuko duten JARDUERA sorta onartu.

Epea: Ertaina

Arduradun nagusia: Euskara



### 1.5.3

## EREMU EZ FORMALETAN EUSKARAREN ERABILERA INDARTU

### Deskribapena:

Badaude zenbait eremu, non euskararen erabilera handitzea beharrezkotzat jo den, hala nola, helduen arteko harremanetan, gazteak elkartzen diren lekuetan, familiaren transmisioa, kirol jardueretan,...

Euskararen erabilera gizarte-eremu ez formaletan bultzatzeko Informazio, komunikazio, sentsibilizazio JARDUERAK egitea proposatzen da.

Helduak eredu direlako, haurrenganako transmisioan funtsezko eragileak dira helduak (gurasoak, aiton/amonak, irakasleak, begiraleak,...), eta jokatu behar duten rol horretan sentsibilizatu behar dira.

### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziako jarduera:

- Gizarte eremu ez-formaletan euskara erabilera sustatzeko kanpaina martxan jarri. Helduen transmisioa arreta berezia jarritz.

Epea: Ertaina

Arduradun nagusia: Euskara





**1.5.4****ETORKINEN ARTEAN EUSKARAREN ERABILERA INDARTU****Deskribapena:**

Etorri-berriei, eskualdearen errealitate soziolinguistikoaren berri ematea funtsezkoa da, ahalik eta modu egokienean integratzeko. Zentzu berean, etorri berriak eta beraien familiarrekoak euskara ikastea sustatzen bada, integrazioa errazteko baliabideak eskaintzen ariko gara. Horregatik, atzerritarrak euskalduntzeko baliabideak jarri beharko lirateke martxan: euskara ikasteko ikastaroak, euskararen historia, ezaugarriak, eta abarreko ikastaroak, mintza-lagunak, euskaldundu diren etorkinen esperientziak zabaltzea,...

**Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduera:**

- Etorri-berriak euskalduntzeko JARDUERAK abian jarri.
- Etorri-berrien harrera protokolo bat martxan jarri, eskualdeko inmigratio saileko teknikariaren, euskara sailaren eta Udate-Idazkaritzaren parte hartzearekin

**Epea:** Laburra**Arduradun nagusia:** Euskara**1.5.5****UDAL ADMINISTRAZIOAN EUSKARAREN ERABILERA INDARTU****Deskribapena:**

Udal langileen artean eta oro har zerbitzu publikoetan euskararen erabilera areagotu, herritarrentzat eredugarri izan daitezten. Era berean, ez da erabiliko hizkuntza eta irudi sexistatik dokumentu, publizitate edo beste edozein materialetan. Informazio, komunikazio eta sentsibilizazio jarduera garatzea, Udaleko langileen eta langileen eta herritarren arteko harremanetan euskara presente egon dadin:

- Udal langileei zuzenduriko prestakuntza eta birziklapena burutuz.
- Orain arte egindako bideari eutsiz, euskarazko produkzioa (idatzizkoa) handitzen jarraituz.
- Hizkuntzen erabilerari buruzko protokolo bat ezarri eta hizkuntza-irizpideak berraztertu eta inplementatu.
- Udal lege berriak ematen dituen aukerak esploratu.

**Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduera:**

- Zerbitzu publikoan euskararen erabilera areagotzeko JARDUERAK martxan jarri.

**Epea:** Laburra**Arduradun nagusia:** Euskara

## 1.5.6

### ALOR PRIVATUAN, NAHIZ AISIAN EUSKARAREN ERABILERA INDARTU

#### Deskribapena:

Jarduera honen helburua sektore desberdinetan euskararen presentzia eta erabilera handitzea da. Arlo honetan, lehentasunezko zatia da gutxienez ondorengo sektoreekin hastea:

- Merkataritza eta ostalaritza: hizkuntza paisaian (idatzizkoa), tabernetan jartzen den musikan, lan hizkuntza ...
- Zerbitzu arloan: udalerrian eskaintzen diren zerbitzuetan, adibidez, anbulatorioa...
- Kirolean: eremu honetan arreta berezia jarri behar da begiraleen formakuntza eta hizkuntza gaitasunean
- Enpresetan euskararen erabilera areagotzeko eskualde mailako mahaia abian jartzen laguntzea, ekimenak bideratzeko Ekonomia Sustatzeko Departamentuarekin elkarlanean.
- Aisialdian euskarazko produktuen kontsumoa sustatzea, tartean euskarazko komunikabideak.
- Merkataritzan eragiteko euskalduntze-plan sektorial bat lantzea.

Honetarako, sektore pribatuei euskara planak garatzeko zerbitzua eskainiko zaie.

#### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziako jarduera:

- Gutxienez sektore pribatuko bi arlotan euskara JARDUERAK martxan jarri.

Epea: Ertaina

Arduradun nagusia: Euskara

Jarduera honen helburua sektore desberdinetan euskararen presentzia eta erabilera handitzea da



## 1.5.7

### KULTURGINTZAN EUSKARAREN ERABILERA INDARTU

#### Deskribapena:

Kultura eskaintzan euskarazko jarduerak areagotzea lortu nahi da, honetarako ondorengo arloetan eraginez:

- Helduentzako euskarazko antzerki/musika ikuskizun gehiago.
- Ikastaroak, tailerrak euskaraz eskaintzea.
- Erakusketetako euskarazko bisita gidatuak.

#### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduera:

- Helduentzako euskarazko ikuskizun, ikastaro, tailer eta bisita gidatu kopurua gehitzea.

Epea: Ertaina

Arduradun nagusia: Euskara

## 1.5.8

### TOLOSARREN EUSKARA EZAGUTZA ETA KALE ERABILERA HANDITZEA

#### Deskribapena:

Erabilera izanik apustu nagusi, elkarlanaren bidea urratu behar du Udalak, euskalgintzarekin batik bat, eta proiektu bateratuak bideratzeko hainbat foro edo mahaietan parte hartu.

#### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduera:

- Euskalgintza alorreko eragileekin euskararen erabilera bultzatzeko ekimenetan parte hartu.

Epea: Laburra

Arduradun nagusia: Euskara





# 1.6 Tolosa, osasunez bizitzekoa

## 1.6.1

### BIZI OHITURA OSASUNGARRIA SUSTATU AKTIBITATE FISIKOAREN BIDEZ

#### Deskribapena:

Jada inork ez du zalantzan jartzen osasuna eta kirola eskutik bat datozela. Bizi ohitura osasuntsua eta gorputz ariketa fisikoa elkarrekin bat datoz. Kirola, bizi osasuntsu baterako lehengai garrantzitsu bat bezala ulertu beharra dago eta eguneroko bizitza ohituraren atal bat bezala txertatu beharra du pertsona orok.

#### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziatzko jarduera:

- Zeharkakotasun politikak indartu eta sinergiak aprobetxatu kolektibo ezberdinekin (haur, gazte, heldu, adineko pertsonak).
- Osasungintzarekin batera EKINTZA oso bat landu eta martxan jarri.
- Pertsonen behar desberdinei egokitutako aktibitate fisikoa eskaini, emakumeen parte-hartzea sustatuz.
- Asia aktiboa eta ohitura osasuntsuekin bultzatzeko jarduera “transbersalak”.
- Espazio urbanoa “bir-konkistatu” (diseinuan, baliabideetan erreparatuz) herritarron aktibotasuna probokatzearen alde, eredu formala eta egituratuetatik kanpo, norberaren inizatiba eta sormenari protagonismoa emanez.

**Epea:** Ertaina

**Arduradun nagusia:** Kirolak

## 1.6.2

### PARTAIDETZAZKO KIROL-JARDUEREN BIDEZ, AISIA HELBURU DUEN KIROL EREDUA BULTZATU

#### Deskribapena:


Kirola = konpetizia formula gainditu beharra dago. Kirola ez liteke konpetizio markora mugatu. Bizi osasuntsu baterako ezinbestekoa den heinean, aisia helburu duen kirol eredu ere sustatu eta eskaini beharra dago. Indibidualismoa oinarri duten kirol erduak baino, partaidetzazko kirol-jarduerak programatu.

#### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduera:

- Kirol eredu desberdinak eta eskaintza desberdinak erakusteko sentsibilizazio kanpaina egin. Kanpainetan, ez da erabiliko hizkuntza eta irudi sexistarik dokumentu, publizitate edo beste edozein materialetan.
- Jarduera fisikoa famili giroan diseinatua, kontziliaziorako bideak jorratuz.
- Naturari begiratzen dion kirola eskaini.
- Kirol minorizatuen eskaintza areagotu.
- Emakumeei zuzendutako kirol jardueren antolaketa
- Eredu eta balio berrietara egokitzen diren erreferentziazko kirol-ikuskizun, jarduera eta praktikak bultzatu, izaera ludikoa, hezigarria eta ez-lehiakorra izango dutenak, eta lehentasuna eman osasunari, jarduera fisikoari eta ingurune naturala errespetatzeari. Eta, era berean, beste balore batzuk sustatu, besteak beste, lankidetzak, taldean lan egitea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna.)
- Helburu hauek dituzten klubak indartu (Zumardia elkarteak besteak beste). (Epe motza).

Epea: Laburra

Arduradun nagusia: Kirolak



### 1.6.3

## TOLOSAKO KIROL ELKARTEEN EGITURA SENDOTU ETA MONITOREAK FORMATU EREDU BERRIETAN ETA BALOREETAN

### Deskribapena:

Kirola osasun balore bezala eta aisia ere helburu duen kirol-jarduera eredua sustatu nahi den heinean, beharrezkoa da kirol elkarte desberdinen jarduera ere norantza berean kokatzea. Horretarako, besteak beste, dirulaguntza politikak behar berrietara egokitu eta norantza horretan kokatu behar dira. Era berea, monitoreak, kirol jardunaren eta herritar kirolariaren arteko zubi diren heinean, etengabeko formakuntza jaso beharra dute aipatu baloreetan, balore horien behar bezalako transmisio funtzioa bete dezaten ere.

### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduera:

- Kirol elkarteekin diru-laguntzen hausnarketa prozesu bat ireki, behar eta balore berrietara egokitzeko asmoarekin.
- Monitoreen formakuntza etengabea baloreetan, berdintasunean eta euskaran. Aldundiarekin elkarlanerako guneak jorratuz.
- Eskola kirola eraldatze bidean jarri eragile guztien konpromisuarekin helburu, arau eta ekintza mailan. Diru laguntza ugaritzea ezinbestekoa da, duintasuna eta sinesgarritasuna eman nahi bazaio. Era berean, antolatzen diren jardueretan gazteen garapen integrala sustatu, sexuaren araberako estereotipoak eta rolak saihesteko mekanismoak martxan jarri.
- Kluben eredu lehiakorra eta kirol praktika egituratuak ez ezik, naturan kokatutako kirol eta jarduera fisiko ez lehiakorra sustatzen duten klub ereduaren sustapena hauspotu.

Epea: Laburra

Arduradun nagusia: Kirolak



## 1.6.4

### KIROL INSTALAKUNTZAK ETA EKIPAMENDUAK INDARTU ESKAINTZA ZABALTZEKO ETA EGOKITZEKO

#### Deskribapena:

Kirol instalakuntzen eta ekipamenduen bitartez eskaintzen den zerbitzua, aldi behin, aztertu eta ebaluatu beharra dago. Bai, beraien bitartez ematen den eskaintza berari dagokionez, baita ere instalakuntza eta ekipamendu horien kudeaketa ereduari dagokionez ere.

#### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduera:

- Kirol instalakuntzen kudeaketa eredu: egoeraren diagnostia, eredu ezberdinen balorazioa.
- Kirol jardueren deszentralizazioa. Ekipamenduetatik kalera atera, bisibilitatea emateko (gizarte aktiboarekin lotuta, lehenengo lerroa).
- Ibaiaren erabilera ezberdinak uztartzeko erabakiak hartu eta espazioen ordenazioa ahalbideratu.
- Eskualde mailako osagarritasuna landu.

Epea: Laburra

Arduradun nagusia: Kirolak



A series of horizontal dashed lines for writing, spanning the right side of the page.







2. ILDO  
ESTRATEGIKOA

---

Tolosa, herri  
hezitzailea eta  
kultur anitza

---



## 2.1 Tolosa, herri hezitzailea eta jakintsua

### 2.1.1

#### HEZKUNTZA KOMUNITATEA OSATZEN DUTEN ERAGILEEN ARTEKO KOORDINAZIOA BULTZATU HEZKUNTZAKO ERRONKEI ERANTZUTEN ETA BALIABIDEEN OSAGARRITASUNA LORTZEKO

##### Deskribapena:

Tolosako hezkuntza-zentroak foro batean elkartzea proposatzen da:

- Antolatzen diren jarduerak koordinatzeko eta, horrela, bikoiztasunak ekiditeko eta eskaintza integrala eskaintzeko.
- Baliabideak eta esperientziak partekatzeko (eraginkortasuna handituz).
- Eskola-kirolean modu bateratuan lan egiteko eta eskola kanpoko jardueretan ere ikasleen garapen integrala sustatu, sexuaren araberako estereotipoak eta rolak bazter batera utzita.
- Beste erakunderen aurrean (Udala, Aldundia, Eusko Jaurlaritz) jarrera sendoa edukitzeko.

##### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduerak:

- Hezkuntza-zentroen mahaia sortu, emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua izango dela bermatuz.

**Epea:** Laburra

**Arduradun nagusia:** Hezkuntza

## 2.1.2

### IKASKETA EZ FORMALEKO ESKAINTZA ZABALDU, HERRIAREN BEHARREI BEGIRA ETA BITARTEKO BERRIEN BIDEZ

#### Deskribapena:

Udalaren eta Hezkuntza-zentroyen mahaiaren arteko elkarlanerako espazioa sortzea proposatzen da (foro bat), eragile biek burutzen dituzten EKINTZAK koordinatzeko.

#### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziako jarduera:

- Udalaren eta Hezkuntza-mahaiaren arteko koordinazio foroa sortu, emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua izango dela bermatuz.

Epea: Ertaina

Arduradun nagusia: Hezkuntza



-----

-----

-----

-----

-----

-----

-----

-----

-----

-----

-----

-----

-----

-----

-----

-----

-----

-----

-----

-----

-----

-----

-----

Udalaren eta Hezkuntza-zentroyen mahaiaren arteko elkarlanerako espazioa sortzea proposatzen da





## 2.2 Tolosa, kultur anitza



### 2.2.1

#### TOLOSAKO MEMORIA ETA ONDARE HISTORIKO-ARTISTIKOA BERRESKURATU, KONTSERBATU ETA ZABALKUNTZA EMAN

##### Deskribapena:

Tolosako memoria historikoa berreskuratzea eta ezagutaraztea, nahiz Tolosako ondare historiko-artistikoa berreskuratzea, kontserbatzea eta ezagutaraztea. Tolosa, herri bezala, bere burua hobeto ezagutzeko eta bere burua ikustarazteko ezinbesteko ekimenak ditugu hauek. Komunitatearen identitatearen eraikuntzan ezinbesteko oinarriak. Horregatik, arlo hauetan emakumeak egindako ekarpenak ikustarazi beharko dira ere.

##### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduera:

Tolosako memoria eta ondare historiko-artistikoaren inguruan ikerketak burutze-ko diru-laguntzak ematea, berdintasun irizpideak kontuan hartuz.

**Epea:** Laburra

**Arduradun nagusia:** Kultura



## 2.2.2

### TOLOSAKO AISIALDI-SORTZAILEA SUSTATU ETA ELKARLANA INDARTU

#### Deskribapena:

Pertsonak berezkoa duen eta pertsona ororen giza garapenerako aberasgarria den adierazpen sortzailea sustatzeko eta azaleratzeko beharrezkoa da aisialdi-sortzailearen alorrean eskaintza desberdinak lantzea eta eragile inplikatu desberdinen arteko koordinazio eta hartu-eman espazioak sortzea.

#### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziatzko jarduera:

- Aisialdi-sortzailea eskainiko duen urtez urteko eskaintza EKINTZA bat lantzea modu parte hartzailean alorreko eragile desberdinekin batera, emakume eta gizonen parte-hartzea orekatua izango dela bermatuz.

Epea: Ertaina

Arduradun nagusia: Kultura







## 2.2.4

### TOLOSAKO KULTUR-GUNEEN EDOTA AZPIEGITUREN INGURUKO AZ-TERKETA ETA HAUSNARKETA INTEGRALA BURUTU, ERABILPEN ETA ESKAINTZA EGOKI BATERAKO EGOKITZAPENAK EGINEZ

#### Deskribapena:

Hirigintza alorretik abiatuko den udal ekipamendu eta gune desberdinen inguruko azterketa eta hausnarketari jarraipena emanez, Tolosako kultur-guneen eta azpiegitura desberdinen inguruko diagnostikoa egingo da, ondorengo alderdiak aztertuz, besteak beste:

- Zein egoeratan dauden egungo kultur ekipamenduak egungo eta etorkizuneko eskaintza kulturaleri erantzun egokia emateko helburuari dagokionez.
- Zer nolako kultur azpiegiturak behar dituen Tolosak.
- Zer funtzio bete behar duten auzoetan dauden udal lokalak eta bestelako azpiegiturek.
- Kultur eskaintza osoago bati begira zer funtzio bete beharko lukete espazio pribatuek.

#### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduera:

- Kultur eragileekin batera kultur-guneen edota azpiegituren inguruko diagnostikoa burutzea.

**Epea:** Ertaina

**Arduradun nagusia:** Kultura



### 2.2.5

## TOLOSAKO UDAL LIBURUTEGIA, HERRIKO KULTUR ESKAINZARAKO LEIHOA

### Deskribapena:

Tolosako udal liburutegia kultur eskaintzarako leiho estrategikoa dela ulertuz, udal liburutegiari kokapen eta zerbitzu berriz gorpuztu beharra dago. Liburutegiko fondoa aberastea eta bere bitartekoak egungo eta etorkizuneko beharretara egokitzea beharrezkoa da.

### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziatzko jarduera:

- Udal liburutegi berria martxan jartzea.

Epea: Luzea

Arduradun nagusia: Kultura

Liburutegiko fondoa aberastea eta bere bitartekoak egungo eta etorkizuneko beharretara egokitzea beharrezkoa da



-----

-----

-----

-----

-----

-----

-----

-----

-----

-----

-----

-----

-----

-----

-----

-----

-----

-----

-----

-----

-----

-----





Ingurunearen babesa  
eta udalerriaren  
nortasuna  
mantenduko duen  
herri garapen iraunkor  
eredugarria

---



## 3.1 Birgaitzea Tolosako garapenaren oinarri

### 3.1.1

#### **TOLOSAKO AUZO BATZUEN BIRGAITZEA ETA BERRONERATZEA SUSTATU, AUZOZ AUZOKO PLANAK DISEINATUZ ETA ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA BARNERATUZ**

##### **Deskribapena:**

Tolosan badaude hainbat auzo birgaitzea eta berroneratzea beharrezkoa dutenak. Horregatik, ekintza honen bidez auzo hauen birgaitzea eta berroneratzea sustatu nahi da, beti ere, auzoz auzoko planak eginiz. Horrek, plan hauek garatzeko finantziario iturriak bilatzea erraztuko bailuke.

Ekintza hau aurrera eramateko, lehenik, birgaitzea eta berroneratzea behar duten auzoen identifikazioa egin behar da lehentasunak ezarriz. Ondoren, lehentasunen arabera auzoz auzoko planteamenduak egingo dira. Horrez gain, planteamendu hauetan ezinbestekoa izango da eraginkortasun energetikoa betetzeko irizpideak ezartzea.

Bizilagunen ikuspuntua barneratzea ere beharrezkotzat jotzen da, horregatik, hauek diseinatzeko orduan, emakumeen eta gizonen parte hartzea orekatua izango dela bermatuko da, eta beraiekin elkarlanean diseinatuz auzoaren antolamendua, bertako guneak berreskuratzeko moduak bilatuz, espazio publikoen erabilera definituz, espazio eta eraikin publikoetara irisgarritasuna bermatuz eta beti ere auzoaren identitatea errespetatuz.

##### **Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziako jarduera:**

- Birgaitzea eta berroneratze beharra duten auzoen identifikazioa.

**Epea:** Laburra

**Arduradun nagusia:** Hirigintza

### 3.1.2

## ALDE ZAHARREKO BIRGAITZEA ETA BIZIBERRITZEA SUSTATU, BIZILAGUNEN BIZI BALDINTZAK HOBETU ETA JENDE GAZTEA ERAKARRI AHAL IZATEKO

### Deskribapena:

Ekintzaren helburua Tolosako Alde Zaharra herritarrentzako bizigarri bilakatzea da. Alde Zaharrean orain arte eraman den birgaitze ereduak oztopo askorekin aurkitu da, gehienbat babes legeei dagozkionak. Horregatik, ekintza honen bidez, lehenik, birgaitzearen arloan udalerrian, baina batez ere Alde Zaharrean, gaur egunera arte egindakoaren gaineko azterketa edo/eta hausnarketa bat egitea proposatzen da, gaur egungo mugak nola gainditu daitezkeen ezagutzeko, hala nola, lege mugak, eraikuntzen segurtasuna, erosotasuna... Aldi berean, etxebizitza hutsen azterketa egin daiteke, horrela dagoeneko eraikita dauden gunek okupatuz eta espazio publiko berriak okupatzea ekidinez. Azterketa egiterakoan, genero-ikuspegia txertatuko dela bermatuko da, eta, besteak beste, emakumeek duten esperientzia eta erabilera desberdinak, segurtasun arazoak eta abar kontuan hartuko dira.

### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduera:

- Alde zaharreko birgaitzeari buruzko azterketa egin eta plangintza egokitu.

Epea: Ertaina

Arduradun nagusia: Hirigintza



## 3.2 Landa eremu bizia

### 3.2.1

#### TOLOSAKO LANDA AUZOAK AUZO EROSOAK ETA BIZIAK IZAN DAITEZEN BERTAKO BIZI KALITATEA HOBETZEKO EKINTZAK BURUTU

##### Deskribapena:

Ekintza honen bidez, Tolosan dauden landa eremuko auzoetan bizi baldintza egokiak bermatzea da, bertan beharrezko oinarriko zerbitzuak eta instalakuntzak jarriz eta egokituz. Horretarako, beharrezkoa izango da lehenengo landa auzo hauen etorkizunaz eta izan behar duten ereduaz hausnarketa egitea eta urteroko jarduerak adostea bertako biztanleekin.

Hausnarketa egiterakoan, nahiz bertatik eratorritako ekintzak definitzerakoan, aintzat hartu beharko da irisgarritasunaren gaia, bai mugikortasunari dagokionez, bai teknologia berriei dagokionez ere.

##### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduera:

- Auzoz auzo bilerak egin eta plangintza adostu, landako emakumeek dituzten beharrak eta premiak kontuan harturik.
- Udal mugikortasunaren azterketa edota planaren baitan, landa-eremuari dagokion azterketa berezitua egin beharko da.
- Plana irauten duen epean landa auzoetan urtero, inbertsioak egitea.

Epea: Laburra

Arduradun nagusia: Obra eta zerbitzuak



### 3.2.2

## LUR POLITIKA EGOKI BATEN BITARTEZ, NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZTA USTIAPEN BERRIAK EZARRI AHAL IZATEA SUSTATU, TOLOMENDIREKIN ELKARLANEAN

### Deskribapena:

Tolosako lurzorua gehiengo basoek eta nekazaritza eta abeltzaintzarako lurzorua hartzen dute. Baina hala ere, nekazaritza ustiapen berriak sortzeko eta nekazari gazteak instalatzeko zailtasun handiak daude. Santa Lutzia Nekazaritza hazitegiari esker nekazari berriek prestakuntza baliagarri bat jasotzen dute baino gero ez dute aukerarik Tolosan edo eskualdean jarraitu ahal izateko. Ekintza honen helburua, nekazaritza/abeltzaintzarako bideratu daitezkeen lursailen azterketa egitea da. Ustiapenera bidera daitezkeen lursailen zerrenda izateaz gain, hauen jabegoa, egoera, azalera, eta beste hainbat datu ere jasoko dira, sexu aldagaia kontuan izanik. Honekin GFAk kudeatzen duen lur bankua osatzen lagundu nahi da.

### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziako jardura:

- Nekazaritza eta abeltzaintzarako egokiak diren lursailen azterketa egin, erabilerarik gabekoak identifikatu.
- Tolosako nekazaritza ustiapenerako lur eskaintza zabaldu.

Epea: Laburra

Arduradun nagusia: Hirigintza - Ingurumena

### 3.2.3

## LANDA EREMUA, HIRI-GUNEARI GERTURATZEKO BIDE SARE EGOKIA MANTENDU

### Deskribapena:

Landa eremuko bideak erabilera anitz dituzte. Baserritarrek eta baso-zaleek beren lanerako erabiltzen dituzte eta gero eta gehiago, mendizaleak, mendi korrikalariak, mendiko bizikletak eta natura kirolarekin loturiko jardura desberdinetarako ere erabiltzen dira. Horregatik, landa eremuko bideen kudeaketa egoki bat egitea beharrezkoa da. Herri-bide nagusien mantenu plana eginez, baso lanen jarraipena eginez eta mendi eta natura ibilbide berriak egokituz eta daudenak mantenduz.

### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziako jardura:

- Baserri bideen inbentarioa egin.
- Mendi pista eta herri bide garrantzitsuenak aukeratu eta mendi bideen mantenu programa berrikusi.
- Landa auzoetan ibilbide seinalatzatu berriak egin eta daudenak mantendu.

Epea: Laburra

Arduradun nagusia: Ingurumena, Obra eta Zerbitzuak

# 3,3 Oria ibaiari begira dagoen Tolosa

## 3.3.1

### ORIA IBAIAK ESKAINTZEN DIZKIGUN AUKERAK BALIOESTEKO PROIEKTUAK GARATU, BERTAKO BIODIBERTSITATEA ZAINDUZ

#### Deskribapena:

Tolosa Araxes, Berastegi eta Oriako urek bat egiten duten lautadan kokatuta dago eta Oria ibaiak Tolosako herrigunea zeharkatzen du. Gaur egun herria ez dago errekarri begira antolatua eta nahiz eta hainbat aisialdi eta kirol praktikak diren bertan, oraindik ere ibaiak eskaintzen dituen aukerak eta erabilera ezberdinak baliatu eta sustatu daitezke. Ekintza honen bidez, Oria ibaia eta bere inguruan, herritarren aisialdirako irekitzen diren aukerak aztertu eta errealitate bihurtu nahi dira, ibaia herriaren bizitzara irekiz eta erreken balio natural eta paisajistikoak errespetatuz.

#### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziako jarduera:

- Erreken gaur egungo eta etorkizuneko erabilerak definitu eta biodibertsitatearen aldetik hauskorrenak izan daitezkeen eremuak aztertu.
- Herriguneko erreka bazterrean berdeguneak eta aisialdi guneak sortu. Zumardi txiki berreskuratu.

Epea: Laburra

Arduradun nagusia: Hirigintza

## 3.3.2

### SENTSIBILIZAZIO KANPAINAK EGIN IBAI ETA ERREKEN GARRANTZI EKOLOGIKOA BALIOAN JARTZEKO

#### Deskribapena:

Herritarrek erreken balio naturalen eta bertako biodibertsitatearen kontserbazioan paper garrantzitsua daukate, eta horregatik beharrezkoa da erreken aspektu desberdinei buruzko informazioa helaraztea, hala nola, erreka eta ibaietako landaredia, fauna, egon daitezkeen inpaktuak. Ekintza honen helburua, herritarrek erreken zaintzan eta kontserbazioan partaide egitea da, horretarako beharrezko informazioa beraiei emanez.

#### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziako jarduera:

- Oria ibaian aurkitu ditzakegun espezie esanguratsuenen gida bat egin.
- Ibilbide gidatuak antolatu ibaiaren biodibertsitatea ezagutzeko.

Epea: Laburra

Arduradun nagusia: Ingurumena



### 3.3.3

## ERREKEN IBILGUAK ETA ERTZAK ZAINTEKO PLANIFIKAZIOA EGIN ETA GARATU HERRITARREKIN ETA BESTE ERAKUNDEEKIN ELKARLANEAN



### Deskribapena:

Tolosako udalak erreken egoera hobetzeko URA agentziarekin, protokolo bat sinatu du. Bertan, Udalak bere gain hartu du erreka hondakinaren bilketa eta URAK ibai-ekosistemen biodibertsitatea babesteko eta ibaien ahalmen hidraulikoa mantentzeko jarduerak egingo ditu. Urtero helburu hauek betetzeko plangintza bat egingo da. Hala ere, erreka garbiketa denon ardura da eta garbiketa hori herritarrekin elkarlanean ere burutu nahi du udalak hori baita, herritarrak erreka garbi mantentzearen garrantziaz ohartzeko bide egokienetako bat.

Adituak diren pertsonekin, garai egokienak aukeratuko dira garbiketa modu seguruan egiteko, baita bertako biodibertsitatean gain ahalik eta eragin gutxien izateko ere. Planifikazioa egin ostean, erreka garbiketa Auzolan bidez egingo da, gutxienez urtean behin herritarrak garbiketa honetan inplikatuz. Horrez gain, garbiketa egunean errekatik ateratzen diren hondakinak herritar guztiek ikusteko moduan jarriko dira.

### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziako jarduera:

- Ura agentziarekin erreken inguruko urteroko plangintza egin .
- Landare inbaditzaileak kentzeko eta ibai ertzetako habitata berreskuratzeko jarduerak egin.
- Ibaietatik hondakinak ateratzeko jarduerak egin urtero herritar eta elkarrekin elkarlanean.

---

Epea: Laburra

Arduradun nagusia: Ingurumena

---



## 3.4 Espazio publiko irekiak eta udal ekipamenduak herritarren harremanetarako gune bilakatzea

### 3.4.1

#### GIZA NEURRIRA ERAIKITAKO TOLOSA. HERRITAR OROREN BEHARREI ERANTZUTEN DIEN HIRITARTZE LANAK BURUTUZ

##### Deskribapena:

Ekintza honen helburua, Tolosan oinezkoak eta desgaitasuna duten pertsonak erdigunean jarriz, herriko kaleak berritzen joatea da, bai espazio publiko irekietan, baita eraikin publikoetarako sarreretan ere.

Urbanizazio lan berrietan eta kaleen eraberritzetan oinezkoentzat espaloi zabalagoak eta irisgarritasun oztopoak desagertzea bultzatuko da, honek espazio publikoak, harremanetarako gunea eta jarduera ekonomikoa ahalbidetzeko duen funtzioa indartuko du. Irisgarritasun kongnitiboaren ideia barneratzea ere proposatzen da, herritar guztiontzako onuragarri izango dena, eta desgaitasuna duten pertsonentzako gizarteratzea eta ahalduntzea ekarriko bai du, kontuan izanik ere, eremu honetan emakume eta gizonen artean dauden desorekak.

##### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziatzko jarduera:

Bide honetan orain arte udalak lana egin du, mugikortasun urriko pertsonekin parte hartze saioak eginez eta ibilbide osasuntsuak proiektua garatuz. Ekintza honekin, gisa honetako elkarlan proiektuak bultzatu nahi dira, ondorengo jarduerak eramanez aurrera:

- Irisgarritasun kongnitiboaren ideia aztertu eta landu, ondoren hartuko diren neurrietan barneratzeko.
- Oraindik irisgarritasun arazoak dituzten eraikinen identifikazioa
- Oinezkoen ibilbideak errazteko hobetu beharreko eremuen identifikazioa
- Identifikazio hauetan oinarrituz, hartu beharreko neurriak zehaztea eta lehentasunak markatzea
- Neurriak aurrera eramatea

**Epea:** Ertaina

**Arduradun nagusia:** Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak

### 3.4.2

## UDAL EKIPAMENDU ETA GUNE DESBERDINEN INGURUKO AZTERKETA ETA HAUSNARKETA INTEGRALA BURUTU, ERABILPEN EGOKI BATERAKO EGOKITZAPENAK EGINEZ

### Deskribapena:

Udalerriko ekipamenduen inguruko diagnostikoa egingo da, ondorengo alderdiak aztertuz:

- Ekipamendu hutsak identifikatu eta aztertu (egoera fisikoa, birgaitze-beharra, erabilera posibleak,...)
- Dauden ekipamenduen zentsua egin eta aztertu: egoera fisikoa (azpiegiturak, irisgarritasuna,...), erabilerak, ...
- Birgaitzeko/egokitzeko/eraikitzeko beharrak identifikatu
- Tolosako herritarren eta elkarte/kolektiboen erabilera-ohiturak eta beharrak aztertu, emakumeen eta gizonen parte-hartzea orekatua izango dela bermatuz.

### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziatzko jarduera:

- Tolosako ekipamenduen azterketa bat egingo da; (ekipamenduen mapa, erabilerak, birgaitzeko/eraikitzeko lehen-tasunak eta aurrekontu-ildoak ...) finkatuko dira.
- Azterketa horretan oinarrituz, udal eraikinak egokitzeko inbertsioak egingo dira.

**Epea:** Laburra

**Arduradun nagusia:** Hirigintza

Helburua, Tolosan oinezkoak eta desgaitasuna duten pertsonak erdigunean jarriz, herriko kaleak berritzen joatea da, bai espazio publiko irekietan, baita eraikin publikoetarako sarreretan ere



# 3.5 Kontsumo arduratsua eta hondakinen kudeaketa eredugarria

## 3.5.1

### HERRITARREI ZUZENDUTAKO KONTSUMO ARDURATSU ETA OSASUNTSUAREN INGURUKO SENTSIBILIZAZIO KANPAINAK EGIN

#### Deskribapena:

Kanpaina hauek tokiko produktuen, garaiko produktuen, merkataritza justuko produktuen eta abarren kontsumora bideratuak izan behar dira. Garrantzitsua da herritarrek erosten dituzten produktuen aukeraketa egoki bat egin dezaten informazio eta formazio saioak burutzea. Sentsibilizazio eta heziketa kanpainak egitean datza ekintza hau, horrela erabilera bakarreko produktuen erosketa ekiditeko, bizitza luzeagoko eta arrisku gutxienerako produktuen erosketa bultzatzeko eta batez ere tokiko eta garaiko produktu osasungarrien kontsumoa bultzatzeko. Era berean, kanpainak burutzerakoan, ez da erabiliko hizkuntza eta irudi sexistarik dokumentu, publizitate edo beste edozein materialetan.

#### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziako jarduera:

- Urtero kontsumo arduratsu eta osasuntsuaren inguruko kanpaina bat egin.

Epea: Laburra

Arduradun nagusia: Ingurumena



### 3.5.2

## HONDAKINEN KUDEAKETAN AURRERA EGIN HOBEKUNTZAK EZARRIZ ETA SENTSIBILIZAZIOA INDARTUZ EKONOMIA ZIRKULARRA LORTZEKO BIDEAN

### Deskribapena:

Gaika jasotzen diren zenbait frakzioetan eragin: plastikozko poltsen erabilera gutxitu, ontzien bueltatzea sustatu, iturriko uraren kontsumoa bultzatu. Hondakinen berrerabilera sustatu, jarduera konkretuak burutuz. Sektore konkretuei zuzendutako ekintzak burutu ahal izango lirateke baita ere: festetan eta asteburuetan plastikozko edalontzien hondakin asko sortzen dira, baita litxarrerria dendetan edo azalera handietan ere.

Gaika jasotzen den hondakinaren kalitatea hobetzeko sentsibilizazio kanpainak egitea.

### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduera:

- Urtero hondakinen prebentzioa eta birziklatzearen inguruko kanpaina edo ekimen bat egin.

**Epea:** Laburra

**Arduradun nagusia:** Obra eta Zerbitzuak, Ingurumena

### 3.5.3

## UDAL ERAKUNDEETAN EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO ARDURATSURAKO ESTRATEGIA GARATU

### Deskribapena:

Azken urteetan erosketa eta kontratazioa publiko berdearen irizpideak jarraituz, kontratu desberdinetako pleguak egin dira, adibidez udal eraikinen garbiketarena. Erosketa eta kontratazio prozesuetan irizpide etikoak, sozialak eta ingurumen arloak txertatzen jarraitzeko estrategia bat diseinatzea izango litzateke egokiena. Estrategia honek ondorengoak barneratuko lituzke, besteak beste.

### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduera:

- Erosketa eta kontratazio berdearen aldeko konpromisoa berretsi.
- Udal langileak arlo honetan formatzea.
- Irizpide hauek txertatu daitezkeen edo beharko liratekeen erosketa eta kontratazioen identifikazioa.
- Irizpideen ezarpenerako eta jarraipenerako plangintza egin.

**Epea:** Ertaina

**Arduradun nagusia:** Ingurumena

## 3.6 Biodibertsitatea bizi-kalitatearen oinarri

### 3.6.1

#### **TOLOSAK DUEN LANDA EREMU ETA EKOSISTEMA ABERATS ETA BALIOTSUAK ZAINDU ETA ABERASTU LURREN KUDEAKETA EGOKI BAT EGINEZ ETA KUSTODIA HITZARMENAK INDARTUZ**

##### **Deskribapena:**

Tolosako landa eremuaren %64a basoa da. Lurzoru hau ia bere osotasunean lurjabe pribatuen eskuetan dago, oso zati txikietan banatua. Honek zaildu egiten du bere antolaketa habitatzen kontserbazioaren ikuspuntutik. Horregatik, udal jabetzako lursailetan biodibertsitatea aberasteko jarduerak egitea komeni da. Zentzu honetan Tolosako udalak Naturtzaindiarekin kustodia hitzarmen bat sinatua du Uzturreko lur publikoetan baso autoktonoa garatzeko eta inguru honetako ondare natural zein kulturala balioan jartzeko. Ekintza honen helburua horrelako hitzarmenak eta jarduerak zabaltzea da, bai lur publikoetan bai ekoizpenerako balio ez duten lursail pribatuetan ere.

##### **Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziako jarduera:**

- Kontserbazio ikuspuntu batetik lur zaintzailtza edo kustodia hitzarmenak zabaldu eremu gehiagoetara.

**Epea:** Ertaina

**Arduradun nagusia:** Ingurumena



### 3.6.2

## HIRI BARNEKO BIODIBERTSITATEA ETA AZPIEGITURA BERDEEN AZTERKETA EGIN, KONEKTIBITATE EKOLOGIKOA SUSTATUZ



### Deskribapena:

Tolosak biodibertsitatean aberatsa den ingurua dauka, horren adierazle da Natura 2000 Sarean barneratuta dauden eremuen presentzia. Horrez gain, konektibitatea hobe dezaketen beste elementuak ere badauzka, hala nola, Uzturre mendia, Aldaba ingurua eta herriguneko parke eta berdeguneak. Hiri ekosisteman biodibertsitatea mantentzeko beharrezkoa da parke hauen arteko konektibitatea, baita hiritik hurbil dauden eremu naturalagoekiko konektibitatea ere. Lotura honetan garrantzitsuak dira zuhaitzak dauzkaten kaleak eta ibaia bera ere, izan ere, faunaren mugimenduak baimentzen dituzte korridore lineal moduan funtzionatzen bai dute.

Ekintza honen bidez, gune guzti hauek lotuko dituen sare bat osatu nahi da. Horretarako, lehenik lotu beharreko eremuen mapa bat marraztu beharko da eta bertan lotune moduan arituko diren guneak identifikatuko dira. Behin mapa marraztu ondoren, konektatu beharreko guneen azterketa bat egingo da (hiriko orban txikiak eta zuhaitzak dauzkaten kaleak) eta ondorengo urteetan egitasmoa aurrera eramateko jarduerak egingo dira.

### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziako jarduera:

- Tolosako azpiegitura berdeen mapa egin.
- Tolosako herri gunean dauden ekosistemen azterketa egin eta hauen arteko konektibitatea aztertu
- Hiriko eremu berdeen kudeaketan jarduerak barneratu hiriko biodibertsitatea hobetzeko

**Epea:** Laburra

**Arduradun nagusia:** Ingurumena



# 3.7 Klima aldaketari aurre egin eta egokitzen jakingo duen herria

## 3.7.1

### ENERGIA ERAGINKORTASUNA ETA ENERGIA BERRIZTAGARRIAK SUSTATU UDAL ERAIKIN ETA KALE ARGITERIAN

#### Deskribapena:

**Tolosak 2011. urtean ALKATEEN ITUNA** sinatu zuen. Hau Europar Batzordeak diseinatutako ekimen bat da, eta haren helburua da **ENERGIA PLANGINTZA GARATZEA UDAL EREMU GUZTIETAN**, hau da, udalerrian energia kontsumitzen duten alor guztietarako planifikazioa egitea 2020. urteari begira. Helburu zehatza hau da: CO<sub>2</sub>-aren isurketak %20 baino gehiago gutxitzea udal eremu guztian 2020. urterako.

Ekintza honek udal eraikinetan energia eraginkortasuna eta energi berriztagarriak zabaltzeko jarduerak hartuko ditu bere baitan. Energia planaren ebaluazioarekin batera ebaluatuko dira.

#### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduera:

Ekintza honek Alkateen ituneko 1etik 28rako jarduerak barne hartzen ditu.

Epea: Luzea

Arduradun nagusia: Obra eta Zerbituzak





### 3.7.2

## ENERGIA-KONTSUMO ARDURATSU ETA ERAGINKORRA ETA ENERGIA BERRIZTAGARRIAK SUSTATU BIZITEGIETAN ETA HIRUGARREN SEKTOREAN

### Deskribapena:

Ekintza honen helburua bizitegi eta zerbitzuen sektorean energia-kontsumo eraginkorra sustatzea da, sentikortze kanpainen bitartez eta fiskalitatearen bidez. Kanpaina hauekin ondorengo neurriak bultzatu nahi dira.

### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduera:

- Alderdi bioklimatikoak integratu eta bultzatu etxebizitza berriak egiterakoan.
- Leiho zaharren berrikuntza, kristal bikoitzekoa leihoak jarriz eta inguruko arotzeria berrituz.
- Eraikuntzen kanpo egituren birgaikuntza, material isolatzailea jarriz.
- Etxebizitzetan, kondentsazio galdarak instalatu.
- Etxebizitzetan, erregaiaren aldaketa, gasoliotik gas naturalera.
- Balbula termostatikoak ipini erradiadoreetan.
- Barne tenperatura mugatu, udan ezingo da tenperatura 26°C-tik eta neguan 21°C baino altuagoa izan.
- Kontsumo baxudun lanparen instalazioa.
- Tresna elektronikoak erosteko orduan, energia eraginkortasun irizpideak barneratu.

Ekintza honek Alkateen Itunaren 34, 35, 36, 37, 38, 39, 40, 41, 42 eta 56, 57, 59 eta 59 ekintzak barne hartzen ditu.

Epea: Ertaina

Arduradun nagusia: Ingurumena

### 3.7.3

## KLIMA ALDAKETAREN ERAGINEZ UDALERRIAN EMAN DAITEZKEEN INPAKTUETARA AURREA HARTU ETA EGOKITZAPENERAKO BEHARREZKO NEURRIAK ZEHAZTU

### Deskribapena:

Ekintza hau aurrera eramateko, lehenik eta behin diagnostiko bat egin beharko litzateke: udalerrriak, klima aldaketak eraginda, jasan ditzakeen inpaktuak ezagutzea, hau da, identifikatutako inpaktu ezberdinen aurrean udalerrriaren esposizioa ezagutzea, bere kalteberatasun-maila neurtzea eta, bi hauek kontutan hartuta, zein nolako arriskua duen kalkulatzeko. Ondoren, azterketa honetan oinarrituta, egokitzapenerako Plan bat garatu beharko litzateke. Plan honek Compact of Mayors nazioarte mailako ekimenaren eskakizunak betetzea ahalbidetuko luke.

### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduera:

- Klima aldaketarako udalerriko egokitzapen Plana egin.
- Klima aldaketarako egokitze planeko jarduerak burutu.

Epea: Ertaina

Arduradun nagusia: Ingurumena

# 3,8 Mugikortasun jasangarria eta segurua sustatzen duen herria

## 3.8.1

### OINEZKO ETA BIZIKLETEI LEHENTASUNA EMATEKO PLANGINTZAK ETA PROIEKTUAK GARATU

#### Deskribapena:

Tolosa eskualdeko herri burua izanik eta herrigunetik urrunduta dauden auzoak edukiz, herrira bertara, eta batez ere erdigunera, auto pribatuz egiten diren joan etorriak ugariak dira. Horregatik, erdigunetik pasatzen den kotxe kopurua oso altua da gaur egun. Egoera honek ingurumen inpaktu ugari sortzen ditu: airearen kutsadura, zarata, segurtasun falta.

Ekintza honen helburua beraz, auto pribatuaren trafikoaren eta aparkalekuen gaineko plangintza bat egitea da, erdigunean trafiko murrizteko, beti ere herriaren biziarentzat beharrezkoa diren fluxuak bermatuz. Aparkaleku publikoak eta kanpo aldeko aparkalekuen erabilera sustatu beharko dira.

Bestalde, bizikleten bide-sarea hobetzea beharrezkoa da, bizikletaren erabilera handitzeak espaloien okupazioa ekarri du eta oinezkoekin elkarbizitza zaildu. Ekintza honekin Tolosa oinezko eta bizikletentzako joan etorriak erosoago eta seguruagoak izatea lortu nahi da eta eta garraio modu ez motorizatuak gehiago erabiltzea bultzatu nahi da.

Azkenik, edozein kanpaina burutzerakoan, hauek bereziki gizonezkoen zuzendutakoak izan beharko dira. Izan ere, datuen arabera, gizonezkoek emakumezkoek baino gutxiago erabiltzen baitute garraio publikoa. Eta bereziki, gazteei zuzendu beharko zaizkie kanpaina hauek, beraiek baitira garraio publikoen erabiltzaile potentzialak, garraio ohitura egokiak lantzeari begira.

---

#### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziatzko jarduerak:

- Mugikortasun jasangarriko plangintza berria egin. Emakume eta gizonek duten erabilera desberdina kontuan izan behar da.
- Mugikortasun plan berrian proposatzen diren jarduerak burutu.
- Bizikletaren erabilera sustatzeko ekimenak egin, aparkalekuak, ibilbideen egokitzapena eta abar.

---

**Epea:** Laburra

**Arduradun nagusia:** Udaltzaingoa Ingurumena

---



### 3.8.3

## MUGIKORTASUN JASANGARRIA ETA SEGURU BAT LORTZEKO HEZKUNTZA KANPAINAK EGIN

### Deskribapena:

Ekintzaren helburua, Tolosako herritarrak mugikortasun eraginkorraren inguruan prestatzea da.

Mugikortasuna ibilgailu pribatuetan oinarritzen da bereziki, hori dela eta, Udalaren aldetik urtero mugikortasun iraunkorraren aldeko kanpainak burutzea proposatu da. Ekintza honen barruan mugikortasun asteko kontzientziazio kanpainak eta ikastetxeekin egiten diren bide hezkuntza kanpainak sartzen dira. Kanpaina hauetan landuko diren gaiak jarraian laburbiltzen dira:

- Txikitatik heztea eta sentsibilizatzea, mutilak batik bat, maskulinitateak duen eraginaz errepideetako arrisku egoeretan.
- Mugikortasun osasuntsua; bizikletaz eta oinez. Segurtasunez ibiltzeko gomendio eta arauak Bide hezkuntza.
- Ibilgailu garbien abantailak. Ibilgailu elektriko, hibrido konektagarria eta bioerregaiak. Hauen sustapena bultzatzeko udaletik ibilgailu elektrikoaren eskurapenerako egon daitezkeen laguntza edo subentzioen hedapena eginez.
- Garraio publiko kolektiboaren onurak. Autobusa eta trenak. Garraio publikoari buruzko informazioa eskura jarri.
- Gidatze eraginkorra. Erregaia eta dirua aurrezteko gomendioak.

---

### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziako jarduera:

- Oinezbusa, haurrak motor-gabeko garraiobideen bidez eskolara joatea sustatu.
- Urtero mugikortasun jasangarriaren aldeko ekimen bat egin.

---

**Epea:** Laburra

**Arduradun nagusia:** Udaltzaingoa Ingurumena

---

# 3.9 Ingurumen kalitatea eta giro osasuntsua sustatzea

## 3.9.1

### SOINU KUTSADURA GUTXITZEKO PLANGINTZA ETA JARDUERAK EGIN

#### Deskribapena:

Udalerriko Zarataren Mapa estrategikoaren ondorioetan eta egin ahal diren bestelako azterketetan oinarrituz, Zaraten aurkako Ekintza Plana osatu udalerrian.

Zarataren aurkako Ekintza Planak udal kudeaketaren ondorengo arloak kontsideratu beharko ditu, besteak beste: ingurumen alderdiak, hirigintza eta lurraldearen antolaketa, trafikoaren kudeaketa, arkitektura, aktibitateen kontrola, arautegiaren araberako neurri edo pizgarriak, baita ekonomikoak ere. Hori dela eta, ekintza honek inplikaturik dauden udal sail desberdinen parte hartzea eskatuko du.

#### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziako jarduera:

- Egin berri den Tolosako Soinu Mapan oinarrituz, soinu kutsadura gutxitzeko plangintza edo jarduera konkretuak egin.

Epea: Ertaina

Arduradun nagusia: Ingurumena

## 3.9.2

### PERTSONEN OSASUNEAN ERAGINA IZAN DEZAKETEN INGURUMEN ARRISKUEN KONTROLA EGIN ETA INGURUMEN KALITATEARI BURUZKO INFORMAZIOA EMAN

#### Deskribapena:

Ingurumenaren egoerak eragina zuzena du pertsonen osasunarengan. Aire, ura edo luraren kutsadura maila kontrolatzeko eta informazioa emateko ardura du administrazioak. Ekintza honekin ingurugiro informazioa herritarren eskura jarri nahi da, teknologi berriek ematen duten aukerez baliatuz.

#### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziako jarduera:

Ingurumenaren kalitateari buruzko informazioa eskura jarri, udal web gunearen bitartez. Gutxienez airearen kalitatea, ibai eta erreken uraren kalitatea eta lur kutsatuen inguruko informazio eguneratua agertuz.

Epea: Laburra

Arduradun nagusia: Ingurumena



2021 10 10 10 10  
10

Arklar

4. ILDO  
ESTRATEGIKOA

---

Tolosako garapen  
ekonomikoa  
sustatu hiri  
ekonomia, industria  
eta lehen sektorea  
oinarritzat hartuz

---



# 4.1 Tolosako merkataritza sustatu

## 4.1.1

### **TOLOSAKO HIRUGARREN SEKTOREA ETA TOKIKO BEZEROEN FIDELIZAZIOA LORTU: LOTURA ESTUAGOAK FINKATU ETA HARREMAN BERRIAK SORTU**

#### **Deskribapena:**

Tokiko bezerotzat hartzen dira udal edo Tolosako bezeroak ez ezik, eskualde osoko bezeroak ere; haiek dira, hain zuzen ere, hiriko merkataritzaren salmenten oinarri edo euskarri nagusia. Bezero horien belaunaldi gazteak ez dira aurrekoak bezain leialak (gazteek kanpoko eskaintzak, Interneteko eskaintzak eta abarrak ere atsegin dituzte). Hori dela-eta, bezero horiek zaintzeko eta loturak haiekin sortzeko, funtsezkoa da defentsa-estrategiak garatzea.

#### **Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziako jarduera:**

- Bezeroen Fidelizazio sistema ezberdinak aztertzeko ikerketa bat egin
- Fidelizazio sistemen balorazio txosten bat egin.
- Tolosako hirugarren sektoreko enpresen Datu basea eguneratu.
- Urteko akordio bat merkataritza sustatzen duen elkarte batekin.
- Bezeroen Datu Base bat sortu, jabe eta langileen sexu aldagaia kontuan izanik.
- Teknologia erabili fidelizatorako.
- Bazkide eta bezeroentzat balio zerbitzua berri bat sortu
- Zerbitzu berritzaile bat eskaini

**Epea:** Laburra

**Arduradun nagusia:** Turismo, azokak eta merkataritza



## 4.2 Turismoak herriaren garapen ekonomikorako eskaintzen dituen aukerak aprobetxatu

### 4.2.1

#### KANPOKO BEZEROAK (TURISTAK) TOLOSARA ERAKARRI

##### Deskribapena:

Turismoa interes handiko aukera berria da Tolosan; izan ere, tokiko kontsumitzaileen gastuaren galera konpentsatzen lagun dezake. Horren harira, Tolosaren posizionamendua ezin hobea da (Donostiatik hurbil baitago). Horrez gain, Tolosan bertan berezko baliabideak eta baloreak daude (identitatea, landa-nortasuna, etab.), beraz, baditu «esperientziatzko turismoa» sustatzeko bitartekoak.

##### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziatzko jarduera:

- Tolosa promozionatzeko euskarriak ekoiztu (web, spot, koaderno...). Dokumentu, publizitate edo beste edozein materialetan hizkuntza eta irudi ez-sexistak erabiliko dira.
- Bilera teknikoak beste herrietako turismo enpresa eta erakundeekin.
- Turismo foroetan Tolosaren presentzia bermatu.
- 2 Produktu Turistiko definitu.
- Donostiako turista Tolosara erakartzeko proiektu bat garatu Donostian.
- Tolosa sustatzeko aurkezpen bat egin Donostian.

**Epea:** Laburra

**Arduradun nagusia:** Turismo, azokak eta merkataritza



# 4.3 Tolosako azpiegitura eta baliabideak

## 4.3.1

### TOLOSA ERAKARGARRI EGIN EROSLE ETA TURISTENTZAT

#### Deskribapena:

Tokiko bezeroekiko harreman hurbila indartzeko asmoz, haiekiko harremana landu ondoren, eta kanpoko bezeroak erakartzeko zubiak eraiki ondoren, kanpoko bezeroek udalerrira etortzea erabaki, eta bertan gastua egin dezaten, ezinbestekoa da erakargarritasuna eta bizkortasuna areagotzeko elementuak sortzea edo edukitzea.

#### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziatzko jarduera:

- Tolosako Azoka berrantolatzeko estudio bat egin.
- Bertako produktuak sustatzeko jarduera ziklo bat antolatu.
- Tolosako Azoka gaztetzeko proiektu bat martxan jarri.
- Azokako azpiegiturak berritu.
- Larunbat arratsaldeak dinamizatzeko proiektu bat landu Tolosa&Co-rekin batera.
- Lehen eta hirugarren sektorearen arteko proiektu amankomun bat sustatu.
- Azokako produktuak saltzeko kanal berri bat sortu.
- Azoka berezi antolatu.
- Azoka berri bat antolatu.

Epea: Laburra

Arduradun nagusia: Turismo, azokak eta merkataritza



### 4.3.2

#### KONTSUMITZAILEAK TOLOSARA ETORTZEA ERRAZTU HARRERA ELEMENTU ETA HARRERA EKIPAMENDUAK LANDUZ

##### Deskribapena:

Bezeroak –eskualdeko zein kanpoko bezeroak eta turistak dira Tolosan– udalerrira etortzen baldin badira, harrera-gaitasuna lantzea beharrezkoa da.

##### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduera:

- Hotel bat irekitzeko lehiaketa martxan jarri.
- Aterpetxearen estudioa egin.
- Aparkalekuen enpresarekin merkataritzaren sektorearentzat onuragarria izango den akordio bat lortu.
- Aparkalekuen seinaleztapena berrabiarazi.

Epea: Laburra

Arduradun nagusia: Turismo, azokak eta merkataritza

### 4.3.3

#### HIRI ATSEGINA EGIN BERTAKO ZEIN KANPOKO EROSLEENTZAT

##### Deskribapena:

Merkataritzako hiri-esparrura joaten diren bezeroek (merkataritzako gunek irekia) aisialdiko eta erosketak egiteko bizipen atsegina izan nahi dute, eta bizipen horretan ezinbestekoak dira hiriko espazioaren kalitatea eta merkataritzaren kalitatea. Hiriko espazio lagunkoia tradizioz lotu zaio hirigintzako merkataritzari, eta horrek barne hartzen du hirigintzaren kalitate-estandarrak betetzea. Testuinguru horretan, oso garrantzitsua da lokal hutsen balioa azpimarratzea, merkataritza-giroa suspertzeko eta teknologia berriak espazio publikora lekualdatzea eta kudeatzea.

##### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduera:

- Lokal hutsak kudeatzeko proiektua martxan jarri.
- Seinaleztapenen estudio bat egin.
- Seinale guztiak berritu.
- Nafarroa Etorbideko obraren ondorioz bi bilera antolatu merkatariekin.
- Smart City proiektuak.

Epea: Laburra

Arduradun nagusia: Turismo, azokak eta merkataritza



## 4.4 Enpresen lehiakortasuna sustatu

### 4.4.1

#### MERKATARITZA, EKOIZLE-BASERRITAR ETA ZERBITZU ENPRESEN LEHIAKORTASUNA INDARTU

##### Deskribapena:

Hiriko espazioaren kalitateaz gain, erosketa-bizipenaz goatzeko ezinbestekoa den bigarren elementua merkataritza-sare lehiakorra edukitzea da. Hori dela eta, ezinbesteko hartu behar da hirugarren sektoreko enpresariak sentikor bihurtzea eta haiei are gehiago profesionalizatzen laguntzea. Azokan, lan egiten duten emakumeek nekazaritzako prestakuntza ikastaroetan parte har dezaten sustatuz. Funtsezkoa da enpresa ondorengotzako aukerak bilatzea eta teknologia merkataritzako jardueretan txertatzea.

##### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziatzko jarduera:

- Enpresen lehiakortasuna bultzatuko duen programa bat martxan jarri Tolosan.
- Enpresen transmisioa lagunduko duen programa bat martxan jarri.
- Enpresak laguntzeko profesionalen kontratazioaren laguntza ekonomikoa baserritar eta merkataritza elkarteei.

**Epea:** Laburra

**Arduradun nagusia:** Turismo, azokak eta merkataritza



## 4.5.2

### LANKIDETZA PUBLIKO-PRIBATUA SUSTATU UDALAK HIRI-EKONOMIAREN DINAMIZAZIO LIDERGOA HARTUZ ETA SEKTOREEN ARTEKO TOPAGUNEAK BULTZATUZ

#### Deskribapena:

Tokiko administrazioak protagonismoa eta indar traktorea dauka; hortaz, funtsezko eginkizuna bete dezake hiriko ekonomia bultzatzeko, zehazki, enplegua, aberastasuna, bizi-kalitatea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta gizarte-kohesioa sortzeko. Hirugarren sektoreko eskaintza, oro har, zatituta dago, eta mikroenpresen artean egiten da; beraz, ezaugarri horiek kontuan hartuta, prozesu horretako lidergo traktorea hartu beharko luke. Horretarako, kluster ikuspegi elkarkorra indartuko duten eragileen arteko topaguneak eta lan-dinamika bateratuak bultzatu behar dira, lankidetzeta publiko-privatua sustatzeko mekanismo berritzaileei bultzada emanaz.

#### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduera:

- BIDari buruz 2 bilera eduki.
- Sektore ezberdinen arteko proiektu bateratua.

Epea: Ertaina

Arduradun nagusia: Turismo, azokak eta merkataritza

Kluster ikuspegi elkarkorra indartuko duten eragileen arteko topaguneak eta lan-dinamika bateratuak bultzatu behar dira





## 4.6.2

### ENPRESA PROIEKTU BERRIEN ETA IDEIA BERRIEN SORMENA SUSTATU

#### Deskribapena:

Ekintzailletza sustatu behar da baliabideak jarritz: baliabide ekonomikoak, azpiegiturak informazio/aholkularitza, enpresa bat sortzeko urratsak jasotzen dituen gida bat, laguntza hasieran eta enpresaren ibilbide osoan zehar; ekintzailletza hezkuntza-curriculumean txertatu (ekintzailletza-gaitasunak umeeekin eta gazteekin txikitatik landuz) eta emakume ekintzailleek dituzten zailtasunak gutxitu eta beraien parte hartzea % 10a izatea bermatu.

#### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziatzko jarduera:

- Ekintzailletzat lokalak edo espazioak egokitzea, jardueren hasierak errazteko.
- Beste erakundeekin elkarlanean ekintzailletza sustatzeko planak eta ekimenak diseinatu eta garatu. Tolosarentzat proiektu eta ekimen berriak identifikatu eta proposatu.
- Udalerriko lanbide heziketako zentroak ekintzailletza gunek bihurtu.

Epea: Laburra

Arduradun nagusia: Enplegua

## 4.6.3

### ENPRESEN ARTEKO SINERGIAK JORRATU ETA LANKIDETZA SUSTATZEA, UDALAK ZUBIGINTZA LANAK BURUTUZ

#### Deskribapena:

Enpresak elkar ezagutarazteko, beraien arteko sinergiak sortzeko, kooperazio kultura sustatzen jarraitu behar da. Ekintza honekin, enpresek, ikerkuntza zentroek eta hezkuntza zentroek osatutako sarea indartu nahi da elkarlana sustatzeko eta enpresetan berrikuntza txertatzeko.

#### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziatzko jarduera:

- Enpresen arteko elkarlan proiektuak bultzatu eta poligono industrial mailako topaketak antolatu, poligono bakoitzaren beharrak eta hobekuntza aukerak aztertzeke eta ideia eta proiektuak elkarbanatzeko.

Epea: Ertaina

Arduradun nagusia: Enplegua



# 4.7 Enplegua, funtsezko aldagaia Tolosako garapen ekonomikoan

## 4.7.1

### TOLOSALDEA GARATZEN ETA UDALEKO SAIL EZBERDINEN ARTEKO KOORDINAZIOA INDARTZEA

#### Deskribapena:

Beharrezkoa ikusi da Tolosako udala eta Tolosaldea Garatzenen ekonomia sailarekin elkarlana indartzea eraginkortasuna hobetzeko.

#### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduera:

Bilera teknikoak eta gaiaren araberakoak antolatu gutxienez bi urtean, urteko kudeaketa plana egiteko. Lehenengo helburuak eta ekintzak finkatzeko eta bestea ebaluaketa egiteko.

Epea: Laburra

Arduradun nagusia: Enplegua





## 4.7.2

### ETENGABEKO PRESTAKUNTZAREN BIDETIK ETA FORMAZIO ESPEZIALIZATUAREN BIDETIK ENPRESA BEHARREI ERANTZUTEKO, LANBIDE HEZIKETA ESKOLEKIN LANKIDETZA INDARTZEA

#### Deskribapena:

Enpresek, ikerkuntza zentroek eta hezkuntza zentroek osatzen duten sarea indartzea beharrezkoa da, elkarlana sustatzeko eta enpresetan berrikuntza txertatzeko. Gero eta profil espezializatuago eta balio anitzekoak beharko dira Tolosan, eta horrek etengabeko prestakuntza eskatuko du. beharko ditu. Horretarako Lanbide Heziketa zentro indartsu eta eguneratuak izatea ezinbestekoa da. Era berean, prestakuntza honek murriztu egin behar ditu jarduera ekonomikoan dauden generoarteko tartearak edo genero-arraileak.

#### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziako jarduera:

- Tolosako enpresetan ate irekien jardunaldiak antolatu, Lanbide Heziketako ikasle-entzat, lan mundura sarrera errazteko helburuarekin.
- Lanbide Heziketako zentroyen azoka berezia sustatu.
- Lanbide Heziketako sailburuordetzarekin harremana sendotu, Tolosako lanbide heziketaren eskaintza erreferentea izan dadin.

**Epea:** Laburra

**Arduradun nagusia:** Enplegua

### 4.7.3

## LAN HEZIKETA ARLOAN EMAKUMEEKIN ETA ARRAZA DESBERDINEKO PERTSONEKIN DAUDEN AURREIRITZIAK GAINDITZEKO URRATSAK EMATEA

### Deskribapena:

Ekintza honen helburua emakumeek industrian duten presentzia orokorrean eta konkretuki tradizioz gizonen lan bezala kontsideratuak izan diren lanetan emakumeen presentzia areagotzea da. Horretarako martxan jarri daitezkeen ekimenen artean.

### Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduera:

- Lanbideren bitartez azken 5 urtetako kontratazioari buruzko datuak eskuratu, jarduera, sexua eta adinari buruzkoak egoeraren diagnosi bat egiteko.
- Ekintza plan bat burutu emakumeen sarrera sustatzeko, ohituraz gizonezkoen lanbide izan diren jardueretan, gizonezkoen % 50etik beherako presentzia badute.

Epea: Laburra

Arduradun nagusia: Enplegua

Enpresek, ikerkuntza zentroek eta hezkuntza zentroek osatzen duten sarea indartzea beharrezkoa da, elkarlana sustatzeko eta enpresetan berrikuntza txertatzeko







# ESKERRAK

Izenen bat faltako balitz, barkatu eta mila esker zure parte hartzeagatik.

# AGRADECIMIENTOS

Muchas gracias por tomar parte y pedimos disculpas de antemano, por si faltase algún nombre en esta lista.

## Herritar eta eragileak *Ciudadanas/os y Agentes*

ANA SANZ  
ANA ZUBIRI  
ANDER AUZMENDI  
ANDER LETAMENDIA  
ANDU MARTINEZ DE RITUERTO  
ANGEL URANGA  
ANGEL MARTINEZ  
ANTONIO GONZÁLEZ  
ANTTON ELOSEGI ALDASORO  
ARANTXA BODERO MENDIZABAL  
ARANTXA ZALAKAIN  
ARRATE ITURBE  
ASIER MANSO  
BEÑAT ARRUTI AIZPURUA  
BITTOR FERNANDEZ  
CARMEN ERASO  
CONCHY GONZALEZ  
CRISTINA LARRAÑAGA  
EKAITZ ZUBELTZU  
ELENA BASAGOITIA  
ELENA PERURENA

JEXUX MURUA  
JOKIN ALDAZABAL  
JOKIN SUKIA  
JON ZUBELDIA  
JON ZULAIKA  
JOSEBA ANTJUSTEGIETXARTE  
JOSE MARI ASEGINOLAZA  
JOSE MANUEL TOLOSA  
JOSERRA ZALAKAIN  
JOSUNE ZALAKAIN  
JOXE AGUSTIN ARRIETA  
JOXE LASA  
JOXE MARI ELOLA  
JUAN JAUREGI  
JUAN UNZUETA GARMENDIA  
JUAN URRETABIZKAIA  
JULEN CAMINOS  
JULEN TELLERIA  
JULIAN MARQUEZ  
KARMELE GOIKOETXEA  
KATIXA PEREA  
KEPA GOIKOETXEA

TARANA KARIM  
TOMAS PLAZAOLA  
UNAI ANDUEZA  
UNAI OLALDE  
VANESSA ALZATE  
XABIER ESTEBAN  
XABIER GOENAGA  
YOANA MENDEZ

## Udal teknikariak *Técnicas/os Municipales*

AGURTZA ZUBEROA  
(berdintasuna)  
ANGEL URANGA  
(hirigintza eta obrak)  
ARANTXA ESTANGA (kirolak)  
ARANTXA ZALAKAIN  
(gizarte zarbitzuak)  
GARIKOITZ LEKUONA  
(parte-hartzea)  
GORKA ELUSTONDO  
(udaltzaingoa)

ESTHER ANTERO  
FERNANDO ELOLA  
GARBIÑE MENDIZABAL  
GARIKOITZ MURUA  
GARTXOT AGIRRE  
GORKA GOIKOETXEA  
GUILLERMO MALKORRA  
GURUTZE ALDANONDO  
HELENA BARAIBAR  
IBAI LUQUE  
IBON BADIOLA  
IDOIA LAHIDALGA  
IDOIA SANCHEZ  
IGOR MUJICA  
IGOR URKIOLA NEGREDO  
IKER KARRERA  
IMANOL ARTOLA  
IMANOL ZUBELZU  
INMA MAIZ  
INMA PEREZ  
IÑAKI AYERZA  
IÑAKI CRUZ  
IÑAKI OLAETXEA AMONARRIZ  
IÑIGO MARTÍN  
ION IRASTORZA  
IRENE LARRAZA  
IRUNE LARRETA  
IRMA ARNAIZ  
ITZEA URKIZU  
ITZIAR DOLADO  
ITZIAR ERASUN  
IVAN ASENJO  
IXA IMAZ BENGOTXEA  
JATSU ORMAZABAL  
JAVIER ARANA

KIKE AMONARRIZ  
KIKE ZINKUNEGI  
KRISTINA MORALES  
LURDES IBAÑEZ  
LURDES SENOVILLA  
MAITE OROQUIETA  
MANU AYERZA  
MARIA JESUS ARRIGAIN  
MARCO SEGUROLA  
M<sup>a</sup> JESUS GAZTAÑAGA  
M<sup>a</sup> JOSE SIN  
MARIA MENDILUCE  
MARTA GARCIA  
MAURO MAROTIES  
MAY GOROSTIAGA  
MENTXU JULIAN  
MERTXE AMIANO  
MIKEL ARRESEIGOR  
MIREIA CARCELLER  
MIREIA ROCA  
MOIRA ECEIZA  
NAGORE EZEIZA  
NEKANE BERRIOTXOA  
NEKANE IZAGIRRE  
NEKANE GARAIALDE  
NISA GOIBURU  
OIHANA HERNÁEZ  
OINATZ MARTINEZ  
OLAIA GARAIOA  
OLATZ ILARREGI  
OLGA ARTOLA  
PABLO ALBERDI  
RAFAEL ARRANZ  
SHOLE MARTÍN  
SILVIA MATEO

GORKA GOIKOETXEA  
(azokak, turismoa eta merkataritza)  
IÑIGO MUÑOZ  
(ingurumena eta ta21)  
JEXUX PEÑAGARIKANO  
(euskara eta zerbitzuak)  
JOKIN ANSORENA (kultura)  
KRISTINA LARRAÑAGA  
(enplegua eta garapen ekon.)  
LOURDES SENOVILLA  
(gizarte zerbitzuak)  
MAITE SERRANO  
(gizarte zerbitzuak)  
NEREA CERECEDA (gazteria)

### **Udal politikariak** ***Políticas/os Municipales***

Olatz Peon Ormazabal  
Jokin Azkue Arrastoa  
Nerea Letamendia Belloso  
Patxi Amantegi Zubiria  
Nuria Carbonell Miranda  
Iñigo Alonso Sarasibar  
Joseba Koldo Ormazabal Lopez  
Maite Ruiz de Eguilas Ezkiaga  
Begoña Tolosa Mendia  
Ibai Iriarte San Vicente  
Onintza Lasa Arteaga  
Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez  
Igor Ezenarro Balda  
Maria Lasa Arruabarrena  
Peio Etxabe Zabala  
Lore Agirre Zipitria  
Christian Fernandez Susin  
Iñigo Cabieces Casares